EZTABAIDA: ZELAKOA NAHIKO ZENUKE IBARRA 20 URTE BARRU? /7

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko martxoaren 28a • IV. urtea • 104. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

XABIER LETONA / 'ARGIA'-KO ZUZENDARIA

"'Argia' euskal gizartean eta euskal prentsaren eremuan zentraltasuna hartzen ari da" **/8-9**

HAUTESKUNDEAK

Inazio Lakuntza, Arrasateko EAJ-EAko zerrendaburu /5

Goienka2a

GOIENKARIA Europako prentsa-diseinu kongresuan egon da

Protesta ekitaldia egin dute, A-1 autobideko lanetan hildakoagatik

Eibar-Gasteiz autobidean lanean ziharduela, Soraluzeko Larreategiko zubibidetik erori eta hil egin zen joan den zapatuan Jose Mari Cerdeira 55 urteko behargin galiziarra. Lan istripu horregatik protesta egiteko elkarretaratzea egin zuten eguaztenean, Bergaran, sindikatu nagusietako ordezkariek. Autobideko lanetan hil den laugarren langilea da Jose Mari Cerdeira. Gainera, beste langile bi joan den udan hil ziren, Bergarako ekialdeko saihesbidean lanean zihardutela. Hortaz, azken hiru urteotan eraikuntzan lanean zebiltzan sei langile hil dira Bergara inguruan.

Datuok aditzera eman zituzten elkarretaratzean sindikatuetako kideek. Eta, bide batez, gogora ekarri zuten urtarrilean Gipuzkoan 966 lan istripu gertatu zirela eta hiru langile hil zirela. Autonomia Erkidegoan, guztira, 14 langile hil ziren urtarrilean. **/4**

KOLDO PEREIRA

Debagoieneko Industrialdeko gerente berria

Debagoieneko Industrialdea erakundeak gerente berria izango du apiriletik aurrera. Koldo Pereira (Bergara, 46 urte, maisu industriala lanbidez) izango da Debagoieneko Industrialdeko gerentea aurrerantzean. Koldo Azkoitia 39 urteko aretxabaletarra izan da 2000ko urritik hona Debagoieneko Industrialdeko gerentea. **/4**

ARRASATE

Merkataritza biziberritzeko plana egin du Jaurlaritzak

Azken urteotan merkataritzan gertatutako aldaketek eraginda, denda eta saltoki txikien egoera dezente eskastu da. Hala gertatu da EAEn, baita Arrasaten ere. Hala, denda txiki horiei bultzada emateko plana egin du Eusko Jaurlaritzak. Plan horretan egindako diagnostikoaren arabera, 1991tik hona %17,2 jaitsi da Arrasateko saltoki kopurua. **/10**

IRAKEN AURKAKO ERASOA SALATZEKO, KALE BILKURAK ETA LANUZTEAK

Erdipurdiko erantzuna izan du lanuzteak

Iraken aurkako erasoagatik protesta egiteko martitzenerako sindikatu nagusiek deitutako lanuzteak erdipurdiko erantzuna izan zuen gurean.

Industria sektorean denetarik izan zen: lanari utzi zion enpresarik bai, baina baita ohiko jardunarekin jarraitu zuenik ere. Oñatin, esaterako, lanuztea egin zuten bai Zahorren baita Hijos de Juan de Garain ere. Gauza bera egin zuten Arrasaten Roneoko eta Gelmako langileek, esaterako. Bergarako Candyn ere egin zuten lanuztea; ez, ostera, Geyserren eta Aceralian. Gauza bera gertatu zen ibarreko kooperatiba nagusietan ere: Ulmak eta Fagorrek ez zioten lanari utzi.

Erantzun handiena ibarreko udaletan eta ikastetxeetan izan zen; elkarretaratzeak egin zituzten herri gehienetako udaletxe aurrealdeetan. Denda gehienetan, berriz, ez zuten lanuzterik egin.

- *Elkarretaratzeak egin dituzte udaletxe aurrealdeetan*
- *Enpresa batzuek lanuztea egin dute; beste askok, ez*
- *Denda gehienak zabalik egon ziren martitzen eguerdian*

EGOERAREN LEKUKO IRAKEN "Esperientzia ahaztezina izan da. Irakiarrek egin ziguten harrera eta han bizi izandakoak ez ditut inoiz ahaztuko", diosku Ander Rodríguez 20 urteko arrasatearrak. Brigadista moduan hiru egun pasatu zituen Bagdad hiriburuan Anderrek, hain justu, AEBen erasoa hastear zegoenean; gero Jordanian egon zen. Irakeko herriari elkartasuna eta laguntza eskaintzera joan ziren Estatuko 25 brigadistetako bat izan da. Anderrekin egon gara. **/2-3**

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6-7 • HERRIZ HERRI/10 • KIROLA/11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a

Gerra Iraken

Ander Rodríguez debagoiendarra Iraken egon da, brigadista, eta hango berri eman dio GOIENKARIAri

Irakiar eskola-umeak, Ander Rodríguezek eta beste euskal brigadistek egindako kartel batekin

LEIRE KORTABARRIA

GOIENKARIAk ez du oraingoan kazetaririk edo argazkilaririk bidali mundu osoaren ahotan, komunikabide guztietan, dagoen lekura: Irakera. Hala ere, gure astekariak ohiz kanpoko lekukoak izan ditu, Ekialde Hurbilean gertatzen ari dena bertan jaso eta helarazi digutenak: batetik, Ander Rodríguez mondragoetar gaztea, Gerraren Aurkako Euskal Herriko Brigadaren kide moduan Bagdad hiriburuan izan dena; eta, bestetik, bertan gelditu diren hiru euskaldunak.

Debagoiendar horren eta gainerako brigadisten helburua, Irakera abiatzean, zen "Irakeko herriari elkartasuna adieraztea", batetik; eta, bestetik, batez ere behin bonbardaketak hasi direnean, eta komunikabide handien "desinformazioa" salatuz, hango errealitatearen berri ematea.

Anderrek egunero jasotzen du Bagdaden gelditu diren hiru euskaldunen berri

EZIN BERTAN GELDITU

Ander Rodríguez arrasatearrak Komite Internazionalistak elkarteak koordinatutako Brigada taldeko kide bezala joan zen Irakera, martxoaren 15ean. Estatu osoko beste 24 lagun zihoazen. Ander martxoaren 17tik 19ra izan zen Bagdaden; 19an, eguaztena, AEBetako gobernuak bukatutzat jo zuen Saddam Husseini egindako ultimatuma, eta Bagdadeko zeruan bonbak agertzen hasi ziren. "Batzarra egin genuen, eta guztiok gelditu gura genuen, baina antolatzaileek ez ziguten itzultzeko baliabiderik ziurtatzen. Hirurendako bakarrik zegoen tokia; hortaz, hiru geratu ziren eta besteok Jordaniara joan ginen, eta handik, etxera", azaltzen du Anderrek.

Hiru egun, hala ere, ez dira berdin Debagoienean edo Bagdaden; Anderrek dioenez: "Esperientzia ahaztezina izan da".

"GU EZ GARA INOR"

"Iritsi bezain laster, egoeraz ahalik eta gehien jakitea erabaki genuen. Buruzagi sindikal edo politikoekin batzartu nahi genuen, baina, ultimatum egoeran zeudenez, ezinezko izan zen", dio brigadista arrasatearrak. Horren ordez, irakiarrekin hainbat elkartasun ekintza egin zituzten: adibidez, Al-Amiriyah 1991n birrindutako gotorlekua bisitatu zuten brigadistek. "480 emakume eta ume hil ziren orduan, eta gotorlekua populazio zibilaren aurkako sarraskien sinbolo bezala gorde dute. *Gernika*-ren kopia bat egin genien opari". Beste behin, eskola baten bakearen aldeko margoak egin zituzten.

Anderrek alde egin behar izan zuen Iraketik, baina egunero jasotzen du han gelditu diren Manu, Imanol eta Jabi brigadista euskaldunen berri. Hiru euskaldun hauek argi dute "gerra bukatu arte" gelditu direla. Ahal bezain sarri bidaltzen dituzte kronikak, eta eskatzen dute hemen gaudenok "ez arduratzea" eurengatik: "Gu ez gara inor. Eskatzen dizuegun gauza bakarra da gurekin dauden milioika irakiarrez kezka zaiteztela, eta protestaren suak piztuta iraun beza zuen eskuotan".

Anderrek alde egin behar izan zuen Iraketik, baina egunero jasotzen du han gelditu diren Manu, Imanol eta Jabi brigadista euskaldunen berri. Hiru euskaldun hauek argi dute "gerra bukatu arte" gelditu direla. Ahal bezain sarri bidaltzen dituzte kronikak, eta eskatzen dute hemen gaudenok "ez arduratzea" eurengatik: "Gu ez gara inor. Eskatzen dizuegun gauza bakarra da gurekin dauden milioika irakiarrez kezka zaiteztela, eta protestaren suak piztuta iraun beza zuen eskuotan".

Apirilak 2:

Hitzaldia: Haragi ekoizpenaren etorkizuna.

Hizlariak:

- Alberto Aldasoro: (EHNEko haragi saileko arduraduna eta baserritara)
- Jon Leturia (Harakina)
- Eneko Egibar (Albaitaria eta kanalen sailkapen teknikaria)
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Teknikaria.

Lekua: Tolosako Kultur Etxean.
Ordua: Iluntzeko 20:00

Apirilak 3:

Hitzaldia: Haragia eta Kontsumitzailea.

Hizlariak:

- Iñaki Arratibel (Sendagilea)
- Iñaki Perurena (Kirolaria)
- Roberto Ruiz (Sukaldaria)

Lekua: Tolosako Kultur Etxean.
Ordua: Iluntzeko 20:00.

Apirilak 5:

- Ganadu eta bere elikagaien erakusketa goizeko 9:00etatik aurrera.
- **Pertsonai ezagunen arteko HARAGI GISATU LEHIAKETA.**

*** Ainhoa Aierbe/Andoni Imaz.**
*** Joxerra Gartzia/Agustin Gajate.**
*** Aizpea Goenaga/Millan Telleria.**
*** Mikel Markez/Josune Bereziartu.**
*** Angel Mª Peñagarikano / Abraham Olano.**
*** Periko Alonso/Santi Bakero.**
*** Kike Amonarriz/Angel Alkain.**
*** Juan Manuel Erasun/Ainhoa Ostolaza.**
*** Anabel Arraiza/ Aitor Zabaleta.**
*** Nerea Pikabea/Joxemi Saizar.**
*** Ramon Labaien/Jose Mª Gorrotxategi.**

- Bertsolariak eta Inaxio Perurenaren herri kirol erakustaldia.
- Goiz guztian zehar, haragi dastaketa publikoa.
- Eguerdiko 13:00etan sari banaketa.
- **LEKUA: Tolosako Triangulo Plazan.**

Giokela, Berme Osoko Okela

KALITATEZKO HARAGIAREN EGUNA

TOLOSAN
Apirilak 2, 3 eta 5

GURE KALITATEA

egunero ehnelur euskadirratia ARGIA LACOR

Badakizu, zer jan, hura izan!

ANDER RODRÍGUEZ

GELDITU DIRENAK

Brigadistak zaurituak zaintzen ibili dira

“Oraingoz, ondo gaude, erreserbak erosi berri ditugu... Ez dakigu noiz arte geldituko garen, egoerak esango du”, esan zigun, telefonoz, Imanol Telleria Bagdaden gelditu den brigadistak. Ander Rodríguez ez zen bonbardaketen lekuko izan; erasoen ondoren, euren eginbeharra izan zen “kalera irten, egoera ikusi, eta zaurituak ospitalera eraman”, dio Imanolek.

IBARREKO KAZETARI BAT

Juanjo San Migel irrati kazetaria, Jordanian

Euskal brigadistak Euskal Telebistako kazetariekin ibiltzen ziren Bagdaden. Imanolek, Jabik eta Manuk azpimarratzen dute kazetariak, oro har, jasaten dabiltzan presioa, handik irten daitezen. Hala ere, ETBko eta beste euskal hedabideetako kazetariek Iraken edo inguruan dihardute. Juanjo San Migel Euskadi Irratiko kazetari arrasatearra, adibidez, Jordanian dago.

ANDER RODRÍGUEZ / BRIGADISTA

“Iritzi publikoaren gerra irabazi gura dute, komunikabideekin”

Ander Rodríguezek (Arrasate, 20 urte) giza konpromisoaren aldeko apustua egin du: Ezker Batua alderdiko ordezkaria da eta Iraken brigadista egon berri da. Ander izan da joandako euskaldunen artean ibarreko bakarra.

Zelan bizi da Bagdadeko jendea?

Erasoak hasi aurretik, tentsio egoera izugarria izan arren, jendea normaltasun osoz bizi zen. Martxoaren 20an, ordea, bonbardaketak hasi zirenean, normaltasun hori hautsi egin zen. Egoera larriago bihurtu zen bonbak egunez ere botatzen hasi zirenean. Ikaragarria zen sirenak goizez entzutea.

Irakiarrek oso harrera ona egin zizueten, Estatutik zindoaztela jakin arren.

Banintzen, bai, beldur ez gintuztela ondo hartuko. Baina irakiarrak oso ondo informatuta daude, nik uste nuen baino hobeto, baita hemengo jendea baino hobeto ere: oso ondo bereizten dituzte Bush, Blair eta Aznarren gobernuak, alde batetik, eta herria, bestetik. Hemen izan diren kale agerraldien, jendearen jarreraren... berri zuten. Kontuan hartu behar da han badutela Internet (AEBetako zerbitzari batzuk zentsuratuta dauden arren) eta atzerriko telebista kate batzuk. Al Jazeera katea ere “arabiar CNN” antzekoa da.

Hemengo komunikabideen aldetik desinformazio handia dago?

Estatuko telebista kate batzuek etengabeko desinformazioa egiten dute. Irakeko telebistaren egoitzaren parean dagoen leku batetik emititzen dute korrespontsal guztiek. Halako



“Estatuko hedabide batzuen aldetik desinformazio kanpaina etengabekoa da”

“Arrisku egoerarik ez genuen bizi izan; baina tentsioa, haserrea... ziren nagusi”

baten, TVEkoari entzun nion esaten “Bagdad hiri mortua” zela, eta zur eta lur geratu nintzen. Nire ustez, AEBetako, Erresuma Batuko eta Espainiako gobernuek iritzi publikoaren gerra aspaldi galdu zuten, eta orain hori irabazteko ahaleginetan ari dira, komunikabideak erabilita.

Hipokrisi handia dago, bestalde. Hipokrisia hutsa da AEBetan hildako amerikar gudarien irudiak ez emititu nahi izana, irakiarrenak eman dituztenean.

Herria Saddam Husseinen alde dago?

Hura diktadura hutsa da, eta, egoera normalean, diktadorearen aurkako oposaketa nabarmena dago. Hala ere, txar handiago baten aurrean (gerra), herriak bat egin du Husseinekin. Hussein bera ez da matxinadaren beldur: horren eredu da herriari armak banatu dizkiola. Era berean, ez da guztiz egia kurdu guztiak AEBen alde daudela; denetarik dago.

Bizi izan zenuten benetako arrisku egoerarik?

Tentsio handiko egoeran bizi izan ginen; arrisku larrian, ordea, ez ginen inoiz egon, ni han izan nintzen bitartean, behintzat. Adibidez, egun baten, gindoazen autobusa basamortu erdian geldirik geratu zen, eta beldur ginen estatubatuarrek ikusiz gero leherkariren bat botako ote ziguten... Baina, oro har, sarraskiak piztutako haserre bizia eta tentsioa zen nagusi.

Baliabide, janari... aldetik zelan dago Irak?

Bagdad, hiriburua, nahiko ondo hornituta dago. Gainera, guretako, atzerritarrak ginenez, ez zen arazorik izan. Baina hango egoera orokorra txirotasunekoa da. Basora hirian, Bagdadeko periferian... elikadurarik eza dago, eta egoera benetan larria da.

Jordanian ere izan zinen. Zelakoa da hango egoera?

Irak baino askoz ere errepresio zorrotzagoa egiten du erregimen hark, nahiz eta AEBen aliatu izan. Salbuespen egoeran bizi dira: adibidez, Legebiltzarrak bi urte daramatza suspentsoan. Han geundela, bertako poliziak jarraipena egin zigun, eta istiluren bat edo beste izan genuen, enbaxadan protestan genbiltzala.

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ENEKO AZKARATE

Eguaztenean egin zuten elkarretaratzea, Bergarako saihesbidean, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuetako kideek.

Koldo Pereira, Debagoieneko Industrialdeko gerente berria

Zeregin horretan jardun duen Koldo Azkoitiaren ordez

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko Industrialdea erakundeak gerente berria izango du apiriletik aurrera. Koldo Pereira (Bergara, 46 urte, maisu industriala lanbidez) izango da Industrialdeko gerentea aurrerantzean. Datorren astelehenean izango den batzarrean hartuko du Koldo Pereirak kargua.

Pereirak esan digu badituela etorkizunerako hainbat helburu. Horien artean, garrantzitsuena, "Aretxabaletako eta Arrasateko Industrialdeak garatzea".

Koldo Azkoitia 39 urteko aretxabaletarra izan da 2000ko urritik hona Debagoieneko Industrialdeko gerentea. Lorpen nagusi moduan azpimarratzen ditu

Koldo Pereira.

"Aretxabaletako Bainuetxeko eta Bergarako Labegaraietako poligonoak bukatzea eta Arrasateko Markuletekoa bideratzea".

A-1 autobideko lanetan ziharduen langile baten heriotza salatu dute

Soraluzeko Larreategiko zubibidean lanean zebilela hil zen zapatuan

ENEKO AZKARATE

Eibar-Gasteiz autobidean lanean ziharduela, Soraluzeko Larreategiko zubibidetik erori eta hil egin zen joan den zapatuan Jose Mari Cerdeira 55 urteko behargin galiziarra. Lan istripu horrengatik protesta egiteko, elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Bergaran sindikatu nagusietako ordezkariek.

Autobideko lanetan hil den laugarren langilea da Jose Mari Cerdeira. Gainera, beste langile bi joan den udan hil ziren Bergarako ekialdeko saihesbidean lanean zihardutela. Hortaz, azken hiru urteotan, eraikuntzan lanean zebiltzan sei langile hil dira Bergara inguruan. Datuok ezagutzera eman zituzten elkarretaratzean sindikatuetako kideek. Eta gogora ekarri zuten urtarrilean Gipuzkoan 966 lan istripu gertatu zirela eta hiru langile hil zirela. Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 14 langile hil ziren urtarrilean.

Hildakoaren senitartekoei doluminak emateaz gain, beharra egin ostean langileek etxera itzultzeko eskubidea dutela gogorarazi zuten sindikatuetako kideek. Eta esan zuten kale bilkura horiekin lan istripuen arazoa gizarteratu nahi dutela.

USOA AGIRRE

Debagoienetik ez ezik, Euskal Herri osotik hurreratutako mendizaleak batu ziren.

Hauteskundeetara aurkezteko sinadurak batzen hasiko dira herri plataformak

Martitzenetik aurrera "ahalik eta sinadura gehien" beharko dituzte

LEIRE KORTABARRIA

Bergarako herri ekimenak, Bergara aurrera taldeak, eta Oñatikoak, Ereitten-ek, jendaurrean aurkeztu dute udal hauteskundeetarako kanpaina: gutxienez, 500 sinadura behar dituzte aurkeztu ahal izateko. Seguruenik ez dira bakarrak izango. Ibarreko beste herri bateko plataformako kide batek zera esan digu: "Herri guztietan dinamika berbera izango da". Kanpaina apirilaren 1ean izango da abian.

Sinadura kopuruari dagokionez, herri ekimenek ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen: "Ahalik eta sinadura gehien batzen saiatuko gara, zenbatekoari begiratu barik".

Euskaltzale ugari elkartu zen Besaiden 'Egunkaria'-ren alde

Torrealdaik berba batzuk esan zizkien han batutakoei

USOA AGIRRE

Ehunka mendizale eta euskaltzale igo ziren joan den zapatuan Besaidera, *Egunkaria*-ri elkartasuna adieraztera, Euskal Herriko Mendizale Federakuntzak egindako deialdiari jarraituta.

Tontorrean, musika eta eguraldi ona lagun, ekitaldia egin zuten, Juan Mari Torrealdai –*Egunkaria*-ren aferagatik atxilotua– protagonista izan zuena. Euskal Herria "une latzak" jasaten ari dela esan zuen, baina itxaropenerako hitzak ere izan zituen.

DEBAGOIENEAN LABUR

Nazioarteko apustuari heldu nahi dio Fagor Etxetresnak, hazkundeari eusteko

Iazkoa ekonomiarendako urte zaila eta gogorra izan zen arren, Fagor Etxetresna kooperatibak irabaziak %30 hobetu zituen aurreko urtekoekiko, 17,68 milioi eurotara helduz. Produktibitatearen hobekuntza eta kostuen kontrola izan ziren hazkunde horren arrazoiak. Fagorrek inbertsio handiak egin zituen iaz, 33,15 milioi eurokoak; horietatik 20 milioi, Gasteizko biltegi berrirako. Aurtengo ekitaldirako, bestalde, nazioartera begira dago, barruko merkatua geldi dagoela ikusita. 2003rako, 951 milioi eurotako negozio kopurua aurreikusi du, iaz baino 5,4 gehiago. /E.A.

IKER BARANDIARAN

Naziotasunaren Egunaren gaineko zehaztasunak astelehenean eman zituzten.

Naziotasun Eguna antolatu du Bai Euskal Herriari taldeak

Autobusak antolatu ditu domekan Ibarrara joateko

LEIRE KORTABARRIA

Bai Euskal Herriari eskubide zibil eta politikoen defentsarako taldeak Naziotasun Eguna antolatu du etzirako, domeka. Ibarran izango da, eta Arrasatetik, Eskoriatzatik, Bergaratik eta Aretxabaletatik autobusak irtengo dira. Izenematea bihar bitartean egin beharko da.

Bai Euskal Herriari taldeak jaia eta aldarrikapena bat egitea erabaki du, martxoaren 30ean (etzi, domeka) Ibarran izango den Naziotasun Egunean.

Jai horren helburua da "euskaldunoi ukatzen zaigun naziotasun eskubidea aldarrikatzea", elkarteak ekintza horren aurkezpen prentsaurrekoan esan zuenez.

Naziotasun eskubide horien aldarrikapena helburu jakin baten gauzatzen da: hain zuzen ere, EHNA agirian. Eta antolatzaileek azaltzen dute Euskal Herriko Naziotasun Agiria bultzatzeko abiarazi dutela Naziotasun Eguna. Horren harira, 10:00etan, Ibarrako Udalean lehen aldiz EHNA tramitatzea ospatuko dute; eta 13:00etan, bertan "EHNA eskuan bizi izateko konpromisoa" hartu dutenek eta Udalbiltzako ordezkariek ekitaldia egingo dute. Musika, herri kirolak, umeendako ekintzak, herri bazkaria, bertsolariak… ere izango dira.

Debagoienean, esaterako, Bergaran eta Antzuolan egin dezakegu EHNA. Naziotasun Egunean parte hartzeko txartelak bihar arte egongo dira salgai.

Inazio Lakuntza izango da EAJ-EA koalizioko zerrendaburua Arrasaten

Arrasaten, Aretxabaletan eta Elgetan, behintzat, aurkeztuko da Aralar

ENEKO AZKARATE

Inazio Lakuntza izango da EAJ-EA koalizioko zerrendaburua Arrasaten. Bestalde, Aretxabaletako Aralar aurkeztu dute oraingo astean. Arrasaten eta Elgetan ere, gutxienez, aurkezteko asmoa dute

Mondragon Negozio Eskolako (MONE) zuzendaria da gaur egun Inazio Lakuntza. Bestalde, ziurtatuta dago Bergara eta Elgetako EAJ-EAko zerrendaburuak herri horietako oraingo alkateak izango direla: Victoriano Gallastegi eta Patxi Basauri, hurrenez hurren. EBk, bestalde, ezagutzera eman du Oñatin lehenengo aldiz zerrenda aurkeztuko duela eta Karmelo Pérez izango dela alkategaia.

Aralarrek ere ziurtatu du Arrasaten, Aretxabaletan eta Elgetan, behintzat, aurkeztuko dituela zerrendak. Eta Gipuzkoako ahaldun nagusi izateko hautagaia aurkeztu du: Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusi Iñaki Irazabalbeitia.



Inazio Lakuntza.

Ibarreko ikastolen topaketa Urkiolan

Giro dotore, euskaldun eta lagun artekoan pasatu zen Deba ibarreko ikastoletako ikasleen bigarren topaketa. Joan den martitzenean izan zen, martxoaren 25ean, Urkiolan. Bergarako Aranzadi, Arrasateko Arizmendi, Oñatiko Txantxiku eta Elgoibarko ikastoletako DBHko 3. mailako 400 ikasle inguru elkartu ziren. Elkarrekin ogitartekoa jan, erromerian nahiko dantza egin… Denetarik egin zuten gazteok. Ikasleek zera nabarmendu zuten: "Lagun berriak egiteko aukera izan dugu". /L.K.



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO
Talde osoa emakumearen eskura

Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia	Antonio Estomba
Menopausia	Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa	Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa	Jose M. Gómez
	Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak	Domingo Murgiondo
Obstetrizia	Miguel Gabarain
Psikosexualitatea	Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia	Fatima Azkue
Hezur dentsitometria	J. Rodríguez

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

Zabalik

DIEGO MARTIARTU

Eko-hiria

Txundituta nauka *eko-* aurrizkiaren erabilerak azkenaldian izan duen gorakada ikaragarriak. Dena da *eko-*. Esan gabe doa *eko-*k halako plus bat ematen diola laguntzen dion berbari. Ekotomateak, adibidez, ekologikoki egindako tomateak izaki, besteak —*eko-* ez direnak— baino kalitate hobekoak dira, nonbait.

Orain ez asko entzun dut eko-hiria hitza estreinako aldiz, Urkulu inguruan eraiki guran dabiltzan halako hiri *guay* bati erantsia. *Guay* diot, *eko-* delako, noski, hau da, ingurumena, ingurunea, ingurugiroa edo dena delakoa errespetatuko ei duelako, gauza orekatua izango ei delako, nonbait. Hala ere, usain txarra hartzen diot nik *eko*-aren kontu honi, noiz eta orain, ekologismoa moda-modan dagoen egunotan. Ematen du astakeria bat ez dela hain astakeria eko- etiketarekin badator, izatekotan, *ekoastakeria* bailitzateke, hau da, astakeria orekatua, ez oso agerikoa, norbait akabatzeko *ekobalak* erabiliko bagenitu bezala.

Ekobalak patentatu egin behar ditut. Dira bala batzuk ez direnak berunezkoak eta lurrean geratzen direnean apenas kutsatzen dute. Hori bai, akabatu, berdin-berdin akabatzen dute zulatzen duten sujetua.

Bush eta sasi-bushak ez dira fin ibili Irakeko erasoa izendatzeko orduan. Izendatzea zeukaten *ekointerbentzioa*, *ekoerasoa* eta baita *ekogerra* ere, eta seguru egon askoz ere jende gehiago edukiko zuketela euren alde.

Esanak esan, zergatik ez dute egiten eko-hiri hori Arrasaten bertan, adibidez Kristo Obreron (non obreroa kristo bat eginda dagoen), eta Urkulu aldea bakean utzi? Hori baino proiektu ekologikoagorik! Baina, aaamigo, eko-nomia jak hor atzien, eko-nomia...

Gutunak

AEKrekin herri bat geroa lantzen

Izenak izana dakar" diosku esaera zaharrak, baina izateko, bizirik gaudela erakusteko, izen hutsa ez da nahikoa; bizitzak jarduera eskatzen du. Jarduera da benetan bizirik gaudela erakusten duen seinalerik adierazgarriena. Euskaldunok bizitzaren arlo guztietan arituta, garai ezberdinetan zehar herri bat garela erakutsi dugu. Oraina, iragana eta geroa batzen dituen unea baino ez da; horregatik esan dezakegu ozenki: "Izan ginelako gara, garelako izango gara".

Euskararen arloari dagokionez ere, jarduera izan da gure hizkuntzari izana eman diona. Etxean, lanean eta kalean euskaraz mintzatzea, entzutea, idaztea eta irakurtzea da euskararen geroari egin diogun ekarpenik handiena. Adierazpen askatasunak irria galdu duen garai ilun honetan botere handiko tresna da gure euskara. Ez dezagun alperrik gal.

Horregatik guztiagatik, aurtengo Korrika 13 lelo berezi eta adierazgarri batekin datorkigu: "AEKrekin herri bat geroa lantzen". Gure herriaren gerorako euskara da funtsezko gakoetako bat, baina herriaren konpromiso irmoa beharrezkoa da horretarako. Herria norbanakoez osatua dagoenez gero, euskarak guztion konpromisoa eskatzen du. Bakoitzak egin dezakeen ekarpenez osatuko da euskararen eta gure Herriaren geroa.

Korrika 13 badator eta gu korrika goaz. Baina gurea ez da iheslariaren korrika. Gure geroaren egarriz korrika goaz aurrera. Korrika goaz, baina pausoz pauso. Pauso baten atzetik bestea jarriko dugu ziurtasunez; gure geroa etengabe lantzen baitugu eraso eta hesi guztien gainetik. Landu dezagun euskararen geroa gaurdanik!

JUANJO RUIZ (AEK-KO ARDURADUNA)
Debagoiena

Berriro zuengana

Gaixotasun larri eta sendaezina duen Bautista Barandalla euskal preso politikoak otsailaren 4an, berriro ere, ebakuntza gogor eta konplexu bati egin behar izan zion aurre. Iruñeko Virgen del Camino ospitalean egin zioten ebakuntza horretan, heste lodia erauzi zioten, preso etxarriarrak hesteetako minbizia izan ez dezan. Hala ere, Bautista Barandallaren gaixotasunak txarrera egiten jarraitzen du. Izan ere, orain, aldakako bi artikulazioak eta bizkar hezurreko azken zatia ditu gaixo. Gainera, bizkar hezurreko ornoetan erreuma ari zaio garatzen. Erreumaren ondorioz, Bautista Barandallak ezin izango ditu mugimenduak egin. Halaber, behazunetako bideetan minbizia izateko arriskua du.

Ikus daitekeen moduan, Bautista Barandallaren osasun egoerak larria izaten jarraitzen du. Iruñeko Espetxe Zaintza Epaitegiko epaileak, ordea, Barandallaren osasun egoera eta bere berri ematen duten txostenak kontuan hartu gabe, ukatu egin dio Barandallari 92. Artikulua. Zoritxarrez, sumatzen genuen bezala, Isabel Huesak ez ditu kontuan hartu kriterio juridikoak eta Madrileko Ministerio Fiskalaren ildoetara makurtu egin da.

Epailearen adierazpenak zinikoak dira. Izan ere, honek dio kartzelako bizi baldintzak ez dutela Barandallaren gaixotasunean eragingo. Hain justu, preso etxarriarraren gaixotasuna kartzelako bizi baldintzengatik okertu denean. Halaber, Barandallaren gaixotasuna larria ez dela dio, Ministerio Fiskal espainiarrak eta Iruñeko kartzelak egindako txostenak ere kontrakoa dioenean.

Barandallaren osasun egoera larriaren ondorioz, espezializatutako medikuek jarraipen zorrotza egin beharko liokete —Iruñeko Virgen del Camino ospitaleko txostenak dioenez— baina kartzelan ezingo diote jarraipenik egin. Gainera, Barandallarendako eta gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsonendako, kartzela da egon daitekeen lekurik txarrena, gaixotasun sorleku baita. Hain zuzen ere, horretaz jabetuta egin zuten legegileek 92. Artikulua.

Orain arte egin duzuen lanari esker, irakurleok, Bautista Barandallaren egoera latza gizarteratzea lortu dugu. Baina orain, epaileak Barandallari legez, justiziaz eta gizatasunez zegokion 92. Artikulua ukatzean, sekula baino garrantzitsuagoa da Bautista Barandallaren askatasuna eskatu duzuen guztiok iritzia ematea, guztiok bere askatasuna exijitzea. Horretarako, besteak beste, martxoaren 27an prentsaurreko bat eskainiko dute Iruñeko Maisonave hotelean, udaletxearen ondoan, 11:00etan. Orain arte Bautista Barandalla askatzeko exijitu duzuen eragile sozial eta sindikalek, eta esparru ezberdineko herritarrek izango duzue protagonismoa prentsaurrekoan. Martxoaren 29an, berriz, manifestazio nazionala egingo da Iruñean. Manifestazioa Iruñeko Golem zinematik abiatuko da, 18:00etan. Mendekuan eta gorrotoan oinarritutako politikarik ez dugu nahi. Horregatik diogu: Barandalla askatu!

DEBAGOIENEKO ETXERAT
Debagoiena

Bai Euskal Herriari

Azken urte hauetan guztion begien aurrean argiki azaldu da zein den herri honek pairatzen duen egoeraren muina: herri eskubideen oinarrizko eskubideen urraketa erabateko eta bortitza.

Lehenengo urraketa, oinarrizkoena, gure izatearena, gure euskal herritar izaera, gure naziotasun eskubidearena. Herri bezala ez gara onartuak eta, beraz, ez du inolako funtsik gure naziotasun eskubideaz mintzatzeak. Gutako batzuk frantziarrak gara eta beste batzuk espainiarrak.

Hizkuntzaren eremuan, botere publiko ezberdinen aldetik bultzatzen diren neurri baztertzaileak daude, gure hizkuntza nazionalari dagokion status ofiziala ez onartuz. Egun, datozen belaunaldien euskalduntzea ez da bermatzen. Gure lurraren hainbat zonaldetan ez dugu euskaraz ikasteko eskubidea, komunikabideen konpromiso eza hizkuntzarekiko izugarria da.

Irakaskuntza alorrean, sistema propiorik gabe, ahalmenik gabe, fisikoki banatuak, kanpotik ezartzen dizkiguten edukiak ikasteko/irakasteko behartuak, euskalduntze bideak etengabe urratuak... Behin gertatzen da kirol eremuan, kultur arloan, sozial zein ekonomia arloan...

Hau horrela izanik, beharrezkoa zaigu jauzi bat ematea eskubideen alorrean. Eskubide honen definizio garbia eginez, beraien aldeko praktika koherentea bultzatuz eta praktika honen defentsa orokorra artikulatuz. Tresna berri baten beharra ikusirik, Arrasaten ere Bai Euskal Herriari herri ekimena sortua da jadanik, herri gisa dagozkigun eskubide horien gauzatze praktikoa aldarrikatu eta bultzatzeko asmoz.

Animatu nahi zaituztegu datorren domekan, martxoaren 30ean, Ibarran egingo den Naziotasun Egunera joateko. Autobusa egongo da Arrasatetik eta txartelak Irati tabernan eskuratu ahal izango dira.

BAI EUSKAL HERRIARI HERRI EKIMENA
Debagoiena

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Orain ari dira eztabaidatzen udalez udal Debagoieneko Lurraldearen Zatiko Plana. Datozen 16 urteei begira etorkizunean gure eskualdea zelakoa izango den eztabaidatzea eta finkatzea du helburu egitasmo horrek. Planean jasotzen direnen aurkako eta aldeko ahotsak entzun dira. Garapen jasangarriaren aldekoak, eskualdea indartzeko premiaren aldekoak. Jakin-mina sortu du gaiak, izan ere, gure etorkizuna dago jokoan. Hona hemen gaiaren gaineko bi ikuspegi.

Zelakoa beharko luke izan gure eskualdeak 20 bat urte barru?

Sektore guztien presentzia bermatuko duen plana

PATXI AGIRREBEÑA
Ekologista

Udalak izan beharko lirateke beren udalerrietan nagusi, haiek baitira eskualdeko biztanleon borondatearen adierazgarri eta interesen defendatzaile, batik bat Diputazioak gurekiko betidanik izan duen utzikeria ikusita. Udalek, Mankomunitatearen koordinaziopean, bultzatu beharko lukete gure ibarraren antolaketa, udalerriek garapen maila ezberdina izan ez dezaten, egunotan eztabaidagai dugun Debagoieneko Lurraldearen Zatiko Planak ekarriko duen bezala. Udalerri guztietan izan behar dugu ekonomiako hiru sektoreen presentzia, baita oinarrizko ekipamendu batzuena ere (osasun mailan, adibidez, desoreka eta gabeziak daude gure eskualdean). Ez dugu uste izan behar industria soilik edo, okerrago, industria talde bat, izan daitekeenik gure garapenaren berme bakarra: ez gaitezen arrautza guztiak otar berean jartzearen arriskuan erori.

Eta industria izan arren motore nagusi, gainerakoak ere jarri beharko ditugu puntuan. Dauzkagun motore denak beharko ditugu, baita berriak sortu beharra ere: horretarako, zoru industriala gorde beharko dugu, egitasmo berriak sustatzeko laguntzen epeak luzatu beharko ditugu, administrazio ezberdinek presentzia handiagoa izan beharko dute gurean, hiriburuetara hainbeste jo beharrik ez izateko. Ostalaritza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak euren krisialditik atera beharko ditugu, udalen araudiei behar zaizkien moldaketak eginez, sustapen eta aholkularitza plangintzak eskainiz eta profesionalen prestakuntzarako zentroak irekiz. Ezin baztertu, era berean, hain gureak ditugun nekazaritza eta abeltzaintzak behar duten zorua gordez eta gure eskualdearen eskari eta eskaintzaren arteko ahal denik eta harreman handiena lortzeko neurriak hartuz (kontsumitzaileei zuzenduriko kanpainak, neurri fiskalak ahal balira...), horrek bermatuko bailuke gure elikaduraren kalitatea eta bermatu ere oinarrizko horniketa balizko krisi larri egoeretan.

Amaitzeko, XIX. mendeko Lord Tennyson poetak "garapenari" buruz eginiko gogoeta: "Aurrera, bai!/Baina, kontuz,/denboraren ubidea ez baita zuzena,/bihurgune eta zeharrune traidoreetan/itzultzen eta iraultzen dena baizik".

"Ez da pentsatu behar industria soilik izan daitekeenik gure garapenaren berme bakarra"

Herritarrok erabaki behar dugu ibarraren etorkizuna

MILA ELORTZA
AHT Gelditu!
Elkarlana taldekoa

Lurraldeko Zatiko Plana Debagoieneko udaletan dago ikusgai, baina ibarreko jendeak ez du inongo informaziorik, ez daki, zehatzmehatz, zein proiektu planteatzen diren hemendik eta 15-20 bat urtera, zein lur eremu hartuko duten... Era berean, 15 bat urteren epean, Debagoieneko populazioa bikoiztu gura dute, baina ez dute esaten populazio horrendako zein baliabide ipiniko dituzten...

Lurra Deialdiak ikusten du Zatiko Planak mobilitatea murriztuko duela, eta Debagoiena, EAEko laugarren hiriburu bihurtzeaz gain, gune jakin baten inguruan zentralizatuko dela: Arrasate. Ingurukoak etxebizitza guneak bihurtuko dira. Bizimodua guztiz aldatuko da, baina ez da horren gainean informaziorik eman. Proiektu horiek hiriburu industrial bihurtzera daramate Debagoiena.

Era berean, argi izan behar dugu, proposatutako proiektu guztiak aurrera eramanez gero, Debagoiena baserri-lurbarik geratuko dela. Populazioa kontziente izan behar da horrek eragina izango duela, adibidez, ezin izango ditugulako hainbat eta hainbat jaki guk geuk landu, kanpotik ekarri beharko ditugu.

Proiektu batzuk komenigarriak dira: adibidez, tranbiarena; izan ere, ibarreko trafiko arazoak konponbidea behar du, eta konponbidea ez da, Lurra Deialdiaren ustez, autobide, errepide... gehiago eraikitzea, baizik eta dugunari probetxua ateratzea.

Argi dago, beraz, Arrasate erdian bizi den lagun batek eta baserritar batek ez dutela berdin ikusiko Zatiko Plana. Gure ustez, alde batetik, Udalek herritar guztioi azaldu beharko ligukete Debagoieneko Zatiko Plana; eta, bestetik, debagoiendar guztiok bat egin beharko genuke, eztabaida bultzatu, hemendik 15 edo 20 bat urtera zelako Debagoiena nahi dugun erabakitzeko. Izango dituen ondorio guztiak gizarteraino eraman behar diren gaiak dira. Helburua da ibarra hobetzea, gure bizi kalitatea ere hobetu dadin.

"Jendeak ez du Planaren gaineko informaziorik, eta udalek hori konpondu beharko lukete"

HURRENGO EZTABAIDAGAIA — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Alkategai guztiak euskaldunak izan beharko lirateke hemen?

Gora eta Behera

EUSKAL HERRI OSOA 'EGUNKARIA'-REN ALDE

Otsailaren 22an ikusi zen bezala, Donostian egindako manifestazio erraldoi eta hunkigarria; baita martxoaren 13ko elkartasun eguna; baita, egunero, hainbatek bidaltzen dituen banakako eta taldekako elkartasun adierazpenak.

MADRILGO GOBERNUAREN JOKAERA JASANEZINA

Madrilgo gobernuak duen jokaera Euskal Herriarekiko. ETAren aitzakiaz, euskara eta euskal kulturarekin zer ikusia duen guztia suntsitu nahian. Atxilotuak torturatuz, askatasun adierazpenen kontra, eta azkenik *Egunkaria* ixtea berretsiz. Noiz arte horrela? Zein izango da hurrengoa?

LUPE IBARBIA
Elgetako eskolako irakaslea

Besteek esana

"Badakite 'Egunkaria'-n ez duela ETAk agintzen, baina bost axola zaie"
IÑAKI URIA
Egunkaria-ko kontseilari ordezkaria
Egunero

"Ez badigute herriari galdetzen uzten hauteskundeak deitzeko bidea dago"
XABIER ARZALLUZ
EAJko EBBko presidentea
Egunero

"Politikariei pista ematen diet: askotan erditikkendu behar dugu batzuek, beste freskoago batzuk ateratzeko"
PELLO ZUBIRIA
Argia-ko zuzendari-albokoa
Argia

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a

Xabier Letona

'ARGIA' ASTEKARIKO ZUZENDARIA

"Egoera ezin daiteke aprobetxatu 1990ean zenbaitzuek lortu ez zutena orain Guardia Zibilak 'Egunkaria' itxi duelako lortzeko"

Xabier Letona (Mondragoe, 1966), *Argia* astekariko zuzendaria da urria ezkero. *Argia*-n, baina, urteak daramatza; 1988a ezkero, hain justu ere. Egunkaria Sortzen taldean ere jardun zuen. *Egunkaria*-ren, *Argia*-ren eta bi hedabideotako hainbat lagunen aurka Guardia Zibilak egindako operazioen gainean egin dugu berba Xabierrekin.

ENEKO AZKARATE

Pello Zubiria etxean da. Amesgaiztoa amaitu zaizuela esan genezake?

Lankide bat atxilotuta dagoenean eta, gainera, Pello egon den moduan egonda, oso gogorra egiten zaio norberari ere eguneroko jardunean aritzea. Orduan, bueno, hura gure artean dagoenez ostera ere lanean, bada, amesgaiztoaren zati bat amaitu dela esan genezake. Gero, jakina, baldintzapeko askatasun egoeran dago, eta ikusi beharko dugu zelako norabidea hartzen duen auziak. Azkenean, horrelako operazio baten aurrean geratzen zaigun zalantza da hurrengo baten bururatzen bazaie ez dakit zelako paperetan oinarritutako operazioa egitea, bidea zabalik dagoela, eta jakin, badakigula zerrendetan bagaudela hurrengoetarako.

Eta horrelako egoeran lan egin behar izateak zer pentsarazten dizu?

Bada, hauskortasun sentsazio handia. Txikia izanda ere, batzuen erabilerarako, momentu baten, tresna bihur zaitezkeela.

Zuk esana da euskaraz lan egitea berez dela zaila, eta horrelako egoeretan lan egiteak gehiago zailtzen duela eguneroko jarduna.

Gurea moduko hedabide txiki batendako merkatuan lehiatzea oso gogorra da, baita egoerarik arruntenean ere. Gainera, maiatzerako aldizkaria berritzea pentsatzen ari gara, eta oso lanpetuta gabiltza azkenaldian, ohiko aldizkaria egiten eta aldizkari eraberritua prestatzen. Horri gehitzen badiogu azken hilabete honetan gertatutakoa, bada, esan dezakegu zoramena izan dela.

Zelan dago Pello une honetan?

Ondo aurkitu dut. Beldur handia geneukan zelan aterako ote zen espetxetik. Baina Soto del Realgo kartzelatik irteten ikusi genuenean, konturatu ginen nahiko ondo zegoela. Oso argal dago, baina buru aldetik oso ondo, betiko Pello. Alde horretatik hartu dugu pozik handien.

***Argia*-ren zuzendari-albokoa da gaur egun Pello Zubiria. Haren atxiloketak zer kalte egin dio *Argia*-ri?**

Material aldetik, lau ordenagailu eroan zituzten. Gero, hainbat argazki papereko bertsioan; eta, bestalde, guri kalte handiena egin diguna da 10.000 argazki digital inguru eroan zituztela. Kalte ekonomikoaz gain, buruhauste handia sortzen digu horrek. Kazetaren esparrua edo erredakzio bat barrutik ezagutzen duenak badaki zer den hori.

Asko egin da berba *Egunkaria*-ren aurkako operazioaren gainean. Gizartearen erantzuna ere erabatekoa izan da. Denborak ematen duen perspektibarekin, zelan baloratzen duzu gertatu den guztia?

Atxiloketak gertatu zirenean, lehenengo egunean, ezustekoa ikaragarria izan zen. Baina pentsatu genuen, *Egunkaria*-rekin lotuta zegoenez, egun batzuetako kontua izango zela eta, beste polizia operazio batzuekin gertatu den moduan, egun gutxian atxilotuak etxean izango zirela, nahiz eta gero auziari erantzun behar. Baina hilabete honetan gertatu diren guztiekin –batez ere, atxilotuek jasandako tratua, tortura salaketak, Pelloren egoera zelan kudeatu duen estatuak...–, esango nuke operazio potolo baten aurrean gaudela, eta ez dakigula, zehatz-mehatz, zertarako egin duten. Ematen du momentuko egoerari pultsua hartu eta froga gisa erabili nahi izan dutela operazioa, ikusteko zelan erantzuten duen gizarteak, zelan Jaurlaritzak eta beste erakunde askok, zer saltsa sortzen duen alderdi abertzaleen artean, zelan erantzuten duten gainerako alderdiek... Ez dakit zeren bila joan diren, baina probatarako erabili dutela ematen du. Horren arabera, pentsa dezakegu operazioa bultzatu dutenei aurrera begira, hainbat pista emango diela horrek guztiak.

Gizartearen erantzunaren gainean zer iritzi daukazu?

Horrek ere ezustean harrapatu gaituela uste dut. Euskal merkatua urria da, eta, alde horretatik, *Egunkaria* ere bai, nahiz eta euskal prentsaren bandera ontzia izan. Guretako asko izan arren, gizarte guztiarendako, akaso, gauza handirik ez da, behintzat, materialki edo talde moduan ordezkatzen duena. Baina, bestetik, ikusi dugu euskarazko egunkari bakarra izateagatik eta euskal kulturaren erreferentzia garrantzitsu izateagatik, euskal gizartean egundoko burrunbada eta erantzuna sortu duela. Seguruenik, jende gutxik esperoko luke horrelakorik. Esango nuke azken 10-15 urteotan ez dela horrelako erantzunik izan euskal gizartearen aldetik. Bateratze mailan, gauza asko lortu dira. Horrek beste perspektiba bat ematen digu, alegia, indar metaketa egiteko gogoa badagoela, nahiz eta egoera sozio-politiko berezian bizi izan. Eta bizi dugun egoera hori dela-eta ez dugu lortzen indar metaketa hori iraunkorra izatea, ezta helburu garbi batzuekin lan egitea, eta, horren ondorioz, ezta indar hori eraginkorra izatea.

Egunkari berria orain artekoa baino zabalagoa izan beharko litzatekee-

'EGUNKARIA'-REN AURKAKO OPERAZIOA

"Geratzen den zalantza da hurrengo baten bururatzen bazaie ez dakit zer paperetan oinarritutako operazioa egitea, bidea zabalik dagoela"

'EGUNKARIA', ZABALAGOA?

"Tristea da Guardia Zibilak itxitako egunkari baten gainean halako hausnarketak egitea, hausnarketa horiek 'Egunkaria' zena beste zerbait bihurtzeko eginak baldin badira"

TORTURA KASUAK

"Horrelako kasuak berriro gerta ez daitezen neurriak hartu beharko lirateke, gertuenetik hasita, Ertzaintzaren aurkako tortura salaketak ere egon izan dira-eta"

'ARGIA'

"Ez dut uste hain serioak garenik. Beharbada, itxurak ematen digu irudi hori, eta, horregatik, diseinua aldatzeko buru-belarri gabiltza"

ARGIA

la esan dute batzuek. Beste batzuek, ostera, sorrerako izaera eta helburuei eutsi beharko liekeela. Zer iritzi duzu zuk?

Nik uste dut egoera berri hau nahiko modu interesatuan dihardutela erabiltzen hainbat lekutan. Tristea iruditzen zait Guardia Zibilak itxitako egunkari baten gainean halako hausnarketak egitea, hausnarketa horiek *Egunkaria* zena beste zerbait bihurtzeko eginak baldin badira, behinik behin. Jakina, bai *Egunkaria*-k eta bai beste hedabide askok zabaltasun, profesionaltasun eta beste hainbat arloren gainean badaukagu zer hobeturik. Baina zabaltasun ideologikoari dagokionez, *Egunkaria* hobetu behar baldin bada, ez da izango beste hedabideak baino zabalagoa ez delako. Esango nuke bai medio publikoak, baita beste hainbat medio pribatu ere, ez direla *Egunkaria* baino zabalagoak. Orduan, zergatik planteatu behar da orain *Egunkaria*-ren zabaltasun ideologikoaren gaineko eztabaida? Uste dut *Egunkaria*-ko jabeek egin beharko luketela, ostera ere, euskarazko egunkaria. Egoera hau ezin daiteke aprobetxatu 1990ean zenbaitzuek lortu ez zutena orain Guardia Zibilak *Egunkaria* itxi duelako lortzeko. Bestalde, *Egunkaria*-koek ere hartu beharko lituzkete entzuten ari diren iritzien gaineko oharrak. Gaur egun euskal kulturan eta euskal komunikazio esparruan dagoen ekosistema berrian eurena zelan kokatu jakin beharko dute, orain dela hamar urteko ekosistema eta oraingoa ez delako bera.

Euskal gizarteak erantzun duen moduan erantzunda, eta gehiengoa abertzalea izanik, zelan ulertu prentsa abertzaleak besteak baino gutxiago saltzea?

Hausnarketa konplikatua da. Horren adierazlerik handiena, gainera, ez da *Egunkaria* bera. Egia da *Egunero*-k une honetan *Egunkaria*-k baino salmenta handiagoa lortzen duela, baina beroaldiaren kontua da hori. Urak bere onera etorriko dira. Bestetik, gizarte abertzale baten abertzaletasun horren aurka egiten duten hedabideek –*DV* eta *El Correo,* esaterako– gehien saltzen dutenak zergatik diren erantzutea ez da samurra. Gure gizartearen kontraesan potoloa da… Botere kontuarekin zerikusia duela uste dut. Urte askoan eraikitako botere sareak ezin dira egun batetik bestera aldatu.

Martxelo Otamendik esan zuen bera torturatu bazuten ez duela pentsatu nahi ere egin 20 urteko gazte bati zer egingo dioten. Zer deritzozu?

Euskal gizarteko esparru zabal baten kontzientzia handia dago torturak eta tratu txarrak egon, badaudela. Gertatzen dena da horren biktimek ez dutela nahiko indar kasu horiek gizarteratzeko, behin eta berriz salatu arren jasan dituzten tratu txarrak. Behintzat, gizarte honetako hainbat alorretan, kontu horren gainean, sentiberatasun handiagoa izango du hainbatek orain lehen zeukana baino. Horrelako kasuak berriro gerta ez daitezen neurriak hartu beharko lirateke, gertuenetik hasita, Ertzaintzaren aurkako tortura salaketak ere egon izan dira-eta.

Osasuntsu dago *Argia*?

Uste dut bere garai osasuntsuenetan dagoela. Batetik, urtetan izan ez dugun azpiegitura lortzen goazelako eta, bestetik, produktu aldetik inoiz izan ez duen kopuru handiena duelako, bai paperean eta bai Interneten. Baina hor dugu betiko erronka: irakurle kopurua handitzea. Arlo horretan ez da erraza aurrera egitea. Esango nuke ez dela makala daukagunari eustea. Edozein modutan ere, gure ustea da *Argia* euskal gizartean eta euskal prentsaren eremuan zentraltasuna hartzen ari dela.

Euskal Herriko aldizkari nazionala da *Argia*. Izate horri erantzuten dio?

Espirituz, bai, baina guk nahiko genukeen moduan erantzuteko falta zaigu, batez ere, Euskal Herriko txoko guztietara ganoraz heltzea. Leku batzuetako gaiak, arazoak, errealitateak hobeto jasotzen ditugu beste leku batzuetakoak baino. Hori onartu beharra dago.



ARGIA

"Itxura aldetik astindua eman nahi diogu astekariari"

Maiatzerako *Argia* berritzen zabiltzatela esan duzu. Zerbait aurreratzerik?

Itxura aldetik astindua eman nahi diogu eta, horrez gainera, edukietan iritzi atala, batik bat, indartu egingo dugu. Gainerakoan antzeko aldizkaria izango dugu, *Argia*-k informazio orokorreko astekaria izaten jarraituko duelako.

Inoiz esan dizue *Argia* serio samarra dela?

Hausnarketak era askotakoak egin ditugu, baina bai, horren gainean sarri entzun ditugu iritziak. Esan izan digute astekari satirikoi bat falta zaigula euskaldunoi eta hau eta bestea. Kontua da gero inor ez dela ausartzen horrelako zerbait egiten. Guk, hala ere, ez dugu uste hain serioak garenik. Beharbada, itxurak ematen digu irudi hori, eta, horregatik, diseinua aldatzeko buru-belarri gabiltza. Baina informazio orokorreko beste aldizkari batzuek ere itxura serio samarra dute.

Harpidedun berriak egiteko eta aldizkaria ezagutzera emateko kanpaina egiten diharduzue une honetan. Helburu konkretua zein da?

Irakurle kopurua eta zabalkundea handitzea. Eta *Argia*, apurka-apurka, edozein euskaldun edo euskaltzalerendako erreferentzia garrantzitsua izatea.

ANTZUOLA

Datorren eguenean, apirilaren 3an, zabalduko dute KZGunea Olaranen

Urtarrilean zabaltzekoak ziren arren, datorren eguenean zabalduko dute, azkenean, Antzuolako KZGunea. Telefono linea jartzeko lanak izan dira atzerapenaren arrazoia.

Olaran etxean jarri dute KZGunea, lehendabiziko solairuan, hain zuzen ere. Bederatzi ordenagailu jarri dituzte hantxe, eta laster hasiko dira Interneten gaineko ikastaroak ematen. Oraindik badago ikastaro horietarako izena emateko aukera, udaletxeko bulegoan edo KZGuneko telefono zenbakira deituta: 943 78 70 86. /A.I.

ANE MOLINA

BERGARA

Txolartek, adimen urritasuna dutenen klubak, Bergarako egoitzako ateak zabalik izango ditu bihar, zapatua, begirale izan nahi duen edonorendako

Atzegi elkarteak adimen urritasuna dutenen aisialdia suspertzeko sortu zuen kluba da Txolarte. Pertsona horiei, beste edonori bezalaxe, kalean ibiltzea gustatzen zaie, baina zailtasun handiagoak dituzte. Hori horrela, Txolarten begirale boluntarioekin elkartzen dira asteburuetan eta elkarrekin planak egiten dituzte. Azken baten, helburua da adimen urritasuna duten pertsonak etxean bezain ondo sentitzea kalean. Horretarako, baina, begirale boluntarioen beharra dute. Horregatik, bihar, zapatua, Martoko kaleko 8. zenbakian duten egoitzako ateak ireki egingo dituzte begirale izateko interesa duen edonorendako. Ate irekien jardunaldi hori 11:00etatik 13:00etara bitartean izango da, eta Debagoien osoko gazteak gonbidatu dituzte. /M.B.

ARETXABALETA

Gaur eguerdian inauguratu dute Konekta Zaitez Gunea herrian

Gaur, hilak 28, inauguratu dute Konekta Zaitez Gunea Markole auzoan. Ekitaldia 12:00etan hasi da eta, besteak beste, Anjel Bergaretxe alkateak hartu du parte. Lehenengo eta behin, aurreskua dantzatu dute eta gero, luncha egon da hara hurreratu diren guztiendako.

KZGuneko egoitzan hamabi ordenagailu jarri dituzte. Horietatik zortzi trebakuntza ikastaroetarako izango dira eta lau nabigatzeko. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako KZGunea 18 urtetik gorakoendako da. /A.L.

ARAMAIO

1936ko kolpe militarrean fusilatutakoen mozioa, aurrera

Udalbatzarrak onartu egin du 36ko gerran fusilatu zituztenen aldeko mozioa. Oro har, zera eskatzen du mozioak: hilketen bidegabekeria onartzea, belaunaldi berriei gertatutakoaren berri ematea, fusilatutakoen omenezko ekitaldietan parte hartzea, falta diren gorpuak berreskuratzeko babesa ematea, Elizak eta botere judizialak heriotzen benetako zergatia aitortzea, eta ekimenak egiteko Udalaren dirulaguntza. Aramaion ez ezik, Debagoieneko gainerako herrietan ere aurkeztuko dute mozioa. /U.M.

ARRASATE

Herriko merkataritza biziberritzeko plana egin du Eusko Jaurlaritzak

Azken urteotan merkataritzan gertatutako aldaketek eraginda, denda eta saltoki txikien egoera dezente eskastu da. Hala gertatu da EAEn, eta, jakina, baita Arrasaten ere. Arrasateko kasuan, denda txiki horiei bultzada emateko plana egin du Eusko Jaurlaritzak.

LEHENENGO DIAGNOSTIKOA

Planaren lehen zatian, udalerriaren egoeraren diagnostikoa egin dute. Horren arabera, 1991tik hona %17,2 jaitsi da Arrasateko saltoki kopurua. Edozelan ere, ibarreko merkataritzagune garrantzitsuena izaten segitzen du, bereziki, Hiper Eroskiri esker. Horrekin batera, txostenak dio Gasteizek geroago eta arrasatear gehiago erakartzen dituela erosketak egitera; laster Eibarren El Corte Inglés handi bat eraikiko dutela ere jakinarazten du; hortaz, horrek ere eramango ditu zenbait erosle. Eta, horren ondorioz, horri ere aurre egin behar diote merkatariek.

GERO, PROPOSAMENAK

Hala, Jaurlaritzak dio denda txikiekiko Udalaren babesa beharrezkoa dela. Horretarako, dendariei erraztasunak ematea egokia dela uste du (dendetan berrikuntza obrak egiteko…), baita urbanizazio aldetik herrian egokitzapenak egitea ere (aparkalekuak egin, zirkulazio arazoak konpondu, merkataritzagunea egokitu…).

Horrelakoak eta antzerako neurriak proposatzen ditu Jaurlaritzak. Orain, zer egin daitekeen ikusi beharko du Arrasateko Udalak.

Zertzelada

Eusko Jaurlaritzak egindako txostenean ikerlariek esaten dute denda eta saltoki txikiekiko Udalaren babesa ezinbestekoa dela.

OÑATI

Herriko farmazietan esperientzia pilotu bat abiaraziko dute

Esperientzia pilotu horrekin, ohiko antibiotiko kaxak saldu beharrean, medikuak agindutako kantitatea bakarrik salduko diote bezeroari. Oraingoz, bost antibiotiko motarekin bakarrik egingo dute froga hori. Sei hilabetez jardungo dute horrela, ekimen horrek zelako erantzuna duen ikusi bitartean. Esperientzia horren helburua da herritarrek botikak neurrian erabiltzen ikastea eta medikuak ezarritako tratamendua ondo betetzea.

Estatuko lau autonomia erkidegotan egingo dute esperientzia hori; Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Oñatin abiaraziko dute sei hilabeteko frogaldi hori. /A.I.

A.I.

Antibiotikoekin bakarrik egingo dute esperientzia pilotua.

ESKORIATZA

Euskara erabiltzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta osasun etxeak

Eskoriatzako Udalak eta osasun etxeak hitzarmena sinatu dute egunotan, euskararen erabilera normalizatzeko asmoarekin. Bi erakundeok lankidetzan jarduteko hainbat konpromiso hartu dituzte, eta arduradun bi izendatu dituzte: osasun etxeko Itziar Garaiurrebaso eta Udaleko Mari Carmen Arrieta.

Mari Carmenen esanetan, lehenengo asmoa ageriko elementuetan eragitea da: errotulazioa, oharrak… Eta gero, herritarrei banatzen zaien idatzietan eragiten hasiko dira: botikak zelan hartu… /M.A.

ELGETA

Arau subsidiarioen aldaketa eskatuz hamalau alegazio jaso dira Udalean

Elgetak datozen hamasei urteetan izango duen garapena zehazteko arauak apirilerako onartzea espero du Udalak. Herritarrek, arau subsidiarioen gaineko hamalau alegazio egin dituzte.

Alegazio batzuk euren lurren erabilpenekin, ados ez dauden herritarrek eginak dira eta herriko zenbait elkartek eta alderdik ere aurkeztu du alegaziorik. Hauek aztertzen ari da Udaleko arkitektoa eta gero arauak Osoko Bilkuran eta Diputazioan onartu beharko dituzte. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

Labidea denda eta Turismo Bulegoa inauguratuko dituzte

Trikiti doinuekin inauguratuko dituzte gaur Labidea denda eta Turismo Bulegoa, 18:30ean. Labidea dendak 35 m² ditu eta Turismo Bulegoak, 29 m². Museoaren proiektuaren barruan txertatu dituzten denda eta bulegoa Amaia Olabek eta Aitziber Gorosabelek kudeatuko dituzte. Turismoa bultzatzea dute helburu bi gatzagarrek. Ibarreko agintariak eta Jon Mikel Murua Nekazaritza eta Ingurumeneko diputatua egongo dira, besteak beste, Gatzagan. Ibarreko herritarrak ere gonbidatuta daude. /A.G.

Podiuma

Zuhaitz Ezpeleta |TRIATLETA|

Txikitatik antxintxika egin izan du Arrasateko mutil gazte honek, eta orain, korrika beste kirol batzuekin elkartuta, duatloian eta triatloian aritzen da ibarreko Antxintxika taldean. Denboraldia bikain hasi du Zuhaitz Ezpeletak. Barakaldon lehenengo izan zen, eta Basaurin eta Oñatin, seigarren.

I.A.

Zuhaitz Ezpeleta Antxintxika Triatloi Taldeko kide da.

Euskadiko Duatloi Zirkuitua lider moduan hasi zenuen. Lehen postuan jarraitzen duzu?

Ez dut uste. Hiru lasterketa jokatu dira eta lehenengoan, Barakaldon, zortea izan eta irabazi egin nuen. Hurrengoetan, berriz, seigarren postuan sailkatu nintzen. Aurten distantzia luzeagoetarako entrenatzen ari naiz, eta probatzera joan nintzen Barakaldoko duatloira. Hortaz, irabazteak ilusio handia egin zidan.

Zelan hasi zinen duatloian?

Korrika txikitatik egin izan dut. Bizikletan, berriz, berandu hasi nintzen, 16-17 urterekin. Bi urtez amateur mailan ibili nintzen, baina lehiakortasun handia zegoela iruditu zitzaidan. Orduan erabaki nuen duatloia probatzea. Duatloian, lehenengotik azkenera, tarte handia dago.

Korrika ala bizikletan, non hobeto?

Korrika, baina duatloirako bietan izan behar da erregularra.

Duatloian ez ezik, trialoian ere aritzen zara, ezta?

Bai, udakoetan hartzen dut parte. Bizikletako eta antxintxikako probez gain, igeri egiten dugu. Triatloi *zuririk*, negukorik, ez dut probatu. Horietan, igeri egin ordez, iraupeneko eskia egiten da. Hala ere, orain horretan hastea nahaste handia izango litzateke.

Ibarreko triatletok Antxintxika taldean bat egiten duzue.

Bai, ni hasieratik naiz taldeko kide. Sortu zenean, 5-6 lagun ginen, baina denborarekin beste talde batzuekin bat egin, eta jende gehiago gara orain. Entrenamenduetan hobe da taldean ibiltzea; izan ere, berez gogorrak dira saioak, eta bakarrik eginez gero, are gogorragoak.

"Triatleta on batek kirol batetik besterako aldaketetara ohitzen jakin behar du"

"Aurten distantzia luzeak probatzeko asmoa dut. Hala ere, Espainiako Txapelketan parte hartzeko sailkatua egon naiteke; hortaz, proba horietara joango naiz"

Zer behar du triatleta on batek?

Erresistentzia handia beharrezkoa da, baina duatloian eta triatloian garrantzitsuena kirol batetik besterako aldaketetara ohitzea da.

Hortaz, kirol askotan ibiltzen zara.

Hori da, hain zuzen ere, triatloiak eta duatloiak duten gauzarik onena, alegia, hainbat kirol egiteko aukera ematen dutela. Bi hilabetez egunero korrika ibiltzeak bete egin dezake kirolari bat. Triatletok, berriz, egun baten korrika egiteko gogorik ez badugu bizikletan ibiltzera irten gaitezke.

Zein izango da parte hartuko duzun hurrengo duatloia?

Aurten distantzia luzeak probatzeko asmoa dut. Taldekideei esan nien lehen hiru probetan gogor saiatuko nintzela, eta gero emango nuela beste lasterketetarako pausoa. Baina taldeko arduradunak esan dit Espainiako Txapelketan parte hartzeko sailkatuta egon naitekeela; hortaz, proba horietara joango naiz, aukera izanda aprobetxatu egin behar da-eta. Iaz egutegiko proba guztietara baina aurten batzuetara besterik ez joateko erabakia hartu dut; hurrengoa ez dakit zein izango den.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gaur hasiko da Elgetan Lau t'erdiko Pilota Txapelketa

270 pilotarik hartuko dute parte

Gaur, egubakoitza, hasiko da ETB Kantxa Lau t'erdiko Banakako Pilota Txapelketa, gaueko bederatzietan. Amateur mailako pilota txapelketa da, eta Elgetako Ozkarbi Elkarteak antolatzen du urtero.

Elgetako Udal Pilotalekuan jokatuko da estreinako partida, eta 23 urtez azpiko zortzi pilotarik izango dute hitzordua iluntzean. Hala, gaur hasi eta uztailera bitartean Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako, Iparraldeko eta Errioxako jokalariek hartuko dute parte txapelketan. Guztira 270 pilotari arituko dira nor baino nor gehiago, bi mailatan banatuta: kadeteen maila eta 23 urtez azpikoen maila.

Gaur egun, Elgetako txapelketa modalitate horretako amateurren txapelketarik garrantzitsuenetakoa da. Txapelketa hori irabazi duten ia pilotari guztiak profesionaletan ari dira jokatzen gaur egun.

GAURKO PARTIDAK

Gaurko saioan 23 urtez azpikoen lau partida izango dira: Abadiñoko Azagirre, Aizarnazabalgo Etxaberen aurka; Urrutia (Abadiño), Zulaikaren (Aizarnazabal) kontra; Lazkaoko Galarraga, Iurretako Vicenteren aurka; eta pilota festa amaitzeko, Salinasen (Iurreta) eta Torresen (Lekeitio) arteko partida.

Ozkarbi elkarteak antolatuta, hortaz, partida ikusgarririk ez da faltako Elgetako pilotalekuan, zaleen gozamenerako. /I.A.

Gorlako Igoera jokatuko da domekan

Ibarreko hainbat txirrindulari izango dira

Oraingo domekan (hilak 30) jokatuko da Gorlako Igoera txirrindulari lasterketa.



DEIA

Iñigo Urretxuak irabazi zuen iaz.

Lokatza Elkarteak antolatu du proba, eta 10:00etan hasiko da Bergarako San Martin plazan. Txirrindulariak Gorlako helmugara 12:30 inguru iritsiko dira.

Lasterketa Gorlatik bi aldiz pasatuko da, eta antolatzaileek proba ikustera autoz joango direnei jakinarazten diete 11:00k baino lehen eta 12:00ak inguruan errepidea itxi egingo dutela.

Guztira 160 partaide ibiliko dira bizikleta gainean, baita debagoiendarrak ere. Izena emateko epea egunean bertan amaituko denez, ez dago zehazterik zenbat diren. Besteak beste, honako hauek har dezakete parte: X. Aranguren, Z. Medina, I. Larrañaga, I. Calvo, A. Atxa, M. Irizar, A. Agirre, M. Lizarralde , I. Juldain eta R. Blazquézek. /I.A.

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Pildain jatetxea

Udala auzoa 14 / ARRASATE
943 79 11 65 / 943 77 18 40

Eskaintza
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

Berezitasunak
- Bildotsa laban erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia

Taberna-Berri jatetxea

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada

Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Uxarte ostatua

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a

Kultura eta aisialdia

Martxoaren 28tik apirilaren 4ra

Jardunaldiak Carlo Magnok eraikitako jauregian izan ziren.

Turismoa egiteko aukera ere egon zen.

Oso alde zahar polita du Aachen-ek.

Oinez edo bizikletan ibiltzeko oso hiri aproposa da Aachen.

Prentsako diseinua, Europan

‘European Newspaper Award’ lehiaketan saria jaso eta kongresuan esku hartu du GOIENKARIAk, Alemaniako Aachen hirian

Amaiera ekitaldian, saria jasotzen.

Laugarren aldia da Alemaniako *Office for Newspaper Design*-ek, *Medium Magazine*-k eta Austriako *Media-Academy*-k Europako Egunkarien Lehiaketa antolatzen dutena. Lehiaketa horrek Europako egunkarien diseinu- kalitatea bultzatzea eta urtean barrena egindako lanik aipagarrienak saritzea ditu helburu.

AACHEN HIRIAN

Historia handiko hiria da Aachen (Akisgran), hantxe egon zen-eta Carlo Magnoren inperioaren muina. Eraikin ederrak utzi ditu Aachenen sasoi hark, hala nola: jauregiak, Akisgrango katedral ezaguna, eraikin zibil zoragarriak... Hiri horri *Koroatzeen hiria* deitu izan diote, bertan 30 errege eta 11 erregina baino gehiago koroatu zituztelako. Koroazio ekitaldi haiek Carlo Magnoren jauregiko gelarik handienean egin zituzten, hain zuzen ere, guk kongresua eduki dugun gela berean.

HAINBAT ATAL SARITZEN DITUZTE LEHIAKETAN

Europa mailako diseinu lehiaketa horretan hainbat sari banatzen dituzte, batzuk orokorrak eta beste batzuk sailkakoak.

Sari orokorrak lau hauexek dira: tokiko, eskualdeko eta nazio mailako egunkaririk eta astekaririk onenen sariak; bestalde, epaimahaiaren errekonozimendu sari orokor bat ere izaten da, eta, horiez gain, atal berezien sariak daude: azalak (tokiko, eskualdeko edo nazio mailako egunkarienak, edo astekarienak diren kontuan hartzen dute); eta azkenik, bestelako atalak. Sail horretan ez dute zabalkuntza kontuan hartzen eta guztiak elkarren aurka lehiatzen dira: produktu berezien azalak, barruko orriak, argazki erreportajeak, infografiak, ilustrazioa, gehigarri bereziak edo barruko azalen atala. Hain zuzen ere, GOIENKARIAk atal horretan jaso du aipamena: orain irakurtzen ari zaren *Goienka2a* sail honetan egindako lan grafikoari eman diote saria Europan. *Goienka2a*-ren sariaren aurkezpenean entzun genuen moduan, “irudi indartsuak” erabiltzea izan da epaimahaikideek azpimarragarri aurkitu duten alderdietako bat. **/14**

GOIO ARANA / IÑAKI ITURBE

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a

KOMUNIKAZIOA/ 'EUROPEAN NEWSPAPER AWARD' SARIEN BANAKETA ETA KONGRESUA ALEMANIAN

Europako prentsako diseinu onenak

'GOIENKARIA'-K SARIA JASO ZUEN ALEMANIAKO AACHEN HIRIAN EGINDAKO PRENTSA DISEINUAREN GAINEKO JARDUNALDIETAN

GOIO ARANA ETA IÑAKI ITURBE

Hiriko leku ikusgarriak bisitatzeko ibilaldia, Aacheneko termetan bainua, kasino ospetsuan afaria... Hainbat ekitaldi izan dira aukeran Prentsa Diseinuaren Bulegoak banatzen dituen sarien inguruan. Guztien gainetik, bi: kongresua eta sari banaketa bera.

Egubakoitz goizean hasi zen kongresua. Lehenik eta behin, Norbert Küpper jaunak, lehiaketako zuzendariak, parte hartutako egunkarien begiratua egin eta lan sarituen aurkezpena egin zuen. Horren ondoren, hurrengo orduetako egitaraua aurkeztu zigun.

HITZALDIAK ETA SARI BANAKETA

Egubakoitz arratsaldean hasi zen kongresua. Sail orokorrean saritutako nazio mailako egunkari *(Frankfurter Allgemaine)* eta astekari (*Ta Nea,* greziarra) onenen ordezkariek erakutsi zituzten euren lanak: diseinuan egindako lanak, etorkizunerako asmoak... Goiza biribiltzeko, euskaldun batek hartu zuen hitza, Javier Errea diseinatzaile nafarrak, hain zuzen ere. Erreak Estatuan kaleratzen diren ondoen diseinatutako egunkarien begiratua egin zuen, eta, beste batzuen artean, *El País, El Mundo, La Vanguardia*... aipatu zituen. Azkenik, berak diseinatutako egunkariak erakutsi zituen: *Deia, Diario de Noticias* eta *El Heraldo de Aragón.*

Gauean, Pavillon Lenné kasino dotorean afaria eta sari banaketa izan ziren. Norvegia, Holanda, Suitza, Finlandia, Belgika... Herrialde askotako 150 bat kazetari, zuzendari eta diseinatzaile elkartu ginen. Estatutik joandakook, mahai biribil baten bueltan, esperientziak trukatzeko aukera izan genuen, eta afalostean lau sari nagusien aldizkari irabazleen ordezkariak irten ziren euren garaikurrak jasotzera.

AMAIERA HITZALDIAK ETA EKITALDIA

Zapatu goizean egunkari txikien txanda izan zen. Norvegiako eta Suitzako egunkari txikien esperientziak aurkeztu zituzten; besteak beste, Galiziatik joandako *La Voz de Galicia*-ko Jesus Gilek *Prestige*-ren gainean egindako lan galanta erakutsi zuen.

Amaiera ekitaldirako utzi zen lan sarituekin egindako erakusketako bisita; horren ondoren, atal bakoitzean saritutakook banan-banan diploma jaso eta argazki ofiziala egin genuen.



Jardunaldien aurkezpenean, GOIENKARIAren lan sarituak erakutsi zituzten momentua.

Javier Errea diseinatzaile nafarra, Norbert Küpper-ekin.

Lan saritu guztiekin erakusketa egin zuten.

GOIENKARIA atzerrian erakusteko aukera izan genuen.

Europa osoko 150 lagunek baino gehiagok hartu dute parte kongresuan.

NORBERT KÚPPER
Antolatzailea
'Office for Newspaper Design'

Pozik hartu gintuen Norbert Küpper-ek Espainiako Estatutik joandakook. GOIENKARIA "irudi indartsuak erabiltzen dituen euskal astekari interesgarria" zela esan zuen. Gainera, *Europako ondoen disinatutako egunkaria* atal orokorrean hamar finalisten artean egon ginela aitortu zigun.

JAVIER PÉREZ BELMONTE
Infografista
Valentziako 'Levante'

Levante egunkariko infografista bakarra da Javier. Penaz aitortu zuen egunkari txikietan infografistaren lana, askotan, "apaingarri" eta "betegarri" bezala hartzen dutela erredakzioan. Javierrek orri osoko infografia dotoreaz egindako lanagatik jaso zuen saria *Infografia* atalean.

JESUS GIL SÁENZ
Arte zuzendaria
'La Voz de Galicia'

Galizian bizi den logroñoar honek *La Voz de Galicia*-n egindako diseinu berritzea eta *Prestige*-aren hondamendiari egindako kazetaritza-jarraipena eta lan grafikoa erakutsi zituen.

Javier Errea diseinatzaileak eta Jesus Gilek egin zituzten gaztelaniazko bi hitzaldi bakarrak.



HERMINIO JAVIER FERNÁNDEZ
Diseinatzailea eta
unibertsitateko irakaslea

Valentziako Unibertsitatean eskolak ematen ditu diseinatzaile honek. *Gehigarri bereziak* atalean aipamena jaso zuen. Bere lanak Valentziako *Levante* egunkarian argitaratu zituen.

Kazetaritza fakultatean albisteen diseinuari ematen zaion garrantzia eskasaz kexu zen.

JORDI CATALÀ
Infografia zuzendaria
'El Periódico de Catalunya'

Aurtengoa ez da Jordi Catalàk jasotzen duen nazioarteko lehenengo saria. *El Periódico*-k katalanez argitaratutako bertsioaren harreraz galdetuta, oso pozik azaldu zen Jordi, eta azaldu zigun egunkariaren 150.000 aletatik ia erdi eta erdi argitaratzen dela hizkuntza bakoitzean.

EKITALDIAK/ KULTURA ETA KIROL EGITARAU OPAROA ANTOLATU DUTE KORRIKAREN INGURUAN

Korrika Kulturala geurean

IBARREKO AEK EUSKALTEGIEK HAMAIKA KULTURA ESKAINTZA ANTOLATU DITUZTE DATOZEN EGUNOTARAKO

LEIRE KORTABARRIA

Aurki zeharkatuko du Debagoiena hamahirugarren Korrika ekitaldiak, eta horrek esan nahi du kirola eta kultura bat eginda izango direla, beste behin, euskararen alde. Korrikalariak iritsi artean, Korrika Kulturaleko ekitaldiekin euskal kulturan murgiltzeko aukera izango dugu.

Alde batetik, Korrika Kulturaleko nazio ekitaldiak izan dira. Horietatik bi izan ditugu ibarrean: alde batetik, Pantxoa eta Peio bikotearen kontzertua Arrasaten; eta, bestetik, pilota partidua Bergaran. Hala ere, Debagoieneko AEK euskaltegiek, Arrasateko Erdu-AEK-k koordinatuta, ibarrerako kultura eta kirol egitarau oparoa antolatu dute datozen egunotarako.

GORRINGO

Kutsidazu bidea, Ixabel **nobela arrakastatsuan oinarritutako antzezlana eskainiko du Gorringo taldeak Arrasaten.**

DATORREN EGUAZTENETIK AURRERA

Bergarak hartuko du aurre, apirilaren 2an, eguaztena: egun horretan hitzaldia izango da kultura etxean, eta musikariek areto futbolean egingo dute herriko ikastetxeetako umeekin.

Hurrengo egunetan ume, gaztetxo eta helduendako hainbat aisialdi eskaintza izango dira Korrika Kulturalaren eskutik. Korrikarendako berarendako motorrak berotzeko, Korrika Txikia pasatuko da ibarretik apirilaren 4an. Apirilaren 5ean, zapatuan, Eskoriatzan arropa salmenta izango da; Arrasaten Ekin taldeak talo txosna ipiniko du eta dantza taldeen kalejira izango da. Aramaiori dagokionez, apirilaren 5ean herri jaialdia izango da kiroldegian, herriko kultura eta kirol esparruetako jendearekin.

APIRILAREN 7AREN INGURUAN

Ekintza jendetsuenak, ordea, apirilaren 6tik aurrerakoak izango dira. Egun horretan helduko da Korrika Bergarara (16:10ean) eta Oñatira (17:40an).

Hilaren 6an, bertsolarien, trikitilarien eta Bandaren emanaldia izango da Bergaran; 13:00etan, herri bazkaria. Arrasaten, Bandaren kalejira; eta 19:30ean, *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlana Amaia antzokian. Oñatiko plazan janari eta edariak banatuko dituzte, Herriko Plazan ipinitako txosna baten. Herri animazioa ipiniko dute malabaristek, grafitigileek… 19:30ean erromeria izango da Herriko Plazan.

Hurrengo arratsaldean iritsiko da Korrika Arrasatera, Eskoriatzara eta Aretxabaletara. Azken bi herriotan Korrika Txikia ere izango da, eta umeendako animazio ekintzak antolatu dituzte, bai bi horietan bai eta Arrasaten ere.

Eskoriatzan txistorra jana izango da; Arrasaten, txalaparta emanaldia, herri poteoa (19:30ean) eta afaria, Uarkapen (21:00).

NIREAUKERA

‘EL PIANISTA’
Roman Polanski

Arrazoi askogatik gustatu zait *El Pianista* filma, bi Oskar irabazi berri dituena. Oso istorio gogorra da: Hitlerrek juduen aurka egindako erasoaren gainekoa da. Protagonista musikari bat da. Gerraren gaineko ikuspuntu berezia ematen digu: ez da artista bezala inplikatzen, baizik eta bizi iraupena du helburu. Bizi irautearen behar horren ikuspuntu xalo eta xumetik kontatzen zaigu istorioa. Artista ez da inongo exijentziaren pean aurkezten, baizik eta gizabanako arrunt moduan, eta hori gaurko nazioarteko egoeran oso esanguratsua da, nire ustez. Girotze lana ere bikaina dela deritzot. /L.K.

Bingen de Pedro

Bergara, 40 urte, margolaria. Eslovenian erakusketa zabalduko du laster.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Aldizkaria

PUTZ

Apokaliftin
52 orrialde

Atal honetan ez da berria *Putz* aldizkaria aipatzea. Hiru eurotan saltzen den bihilabetekari honek oraingoan ere badakartza hainbat gai. Betiko bihurtu diren sexu tarte horiez gain (zakildun narras eta ezjakinei zuzendutako *Zakil-janaz hamasei urrezko arau*, *Kontaidazu gehiago*...), baditu beste hainbat atal ere, esaterako, elkarrizketa. Asier Altuna *Kixi* eta Mikel Kazalis izan dira elkarrizketatuak, biak hala biak, ezagunak musikan.

Interneteko zabortegia atala izango da komentatuenetariko bat, seguruenik. Badakizue, betikoa.

DISKOA / Umeendako



KONTUAK KANTU

Igor Elortza

Alfaguara-Zubia
100 orrialde

Bertsolariek idazmahaiaren atzean egoten ikasi ei dute. Hamaika euskal kontu zahar hautatu ditu Igor Elortzak, bertso moldera ekarri eta kantu bihurtzeko. Artzainen, kittanen, lapurren, aita-semeen, zapatarien nahiz alferren kontuak kantatzen dira herri ipuinotan.

Asisko Urmeneta ezagunaren marrazkiek polito dantzatzen dituzte berba bizidunok.

Alfaguara-Zubia zigilupean gazteendako idazten duen bigarren liburua da hau. Lehenengoarekin Margolan Liburu Gaztea saria irabazi zuen 2000-2001 aldian.

DISKOA / ‘Reggae-ska’ eta ‘hardcore’-a

EURIA ARI DUELA

Sagarroi
Metak
12 kantu

Eraberritua datorkigu taldea. Dagoeneko estudioan ditugu bigarren lana izango dena grabatzen. Oraingoan ere Andoaingo Garate estudioak aukeratu dituzte lan hori betetzeko eta oraingoan ere Kaki Arkarazo arduratuko da lan teknikoaz. *Reggae-ska* eta *raggamuffin*-a, euren *hardcore*-aren irakurketa pertsonalarekin nahastua. Bistan da horrek taldearen norabide musikalean aldaketa dakarrela. Asier Ituarte tronboi jotzailea -Joxe Ripiau ohia- taldean sartzeak nola edo hala ekarririko moldaketa.

Diskoa *bonus track* eta guzti dator.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a

Mar. 28–Api. 4

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

LEHIAKETAK

ARAMAIO

► **Aramaioko San Martin jaietako** kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udalak. Interesa duen edozeinek har dezake parte; hori bai, A-3 edo A-2 formatuan edo euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira lanak. Derrigorrezko testua da *San Martinak 2003 Aramaio - Uztailak 4, 5, 6 eta 7.* Maiatzaren 30a baino lehen bidali lanok Aramaioko udaletxera. Lehen saria 180 eurokoa izango da.

ARRASATE

► **Aktore ez profesionalen lehiaketa** deitu du Arrasateko Iamai kafetegiak. Bidali zuen curriculumak Kontzezino kaleko 14-baxua helbidera.

BERGARA

► **XIX. Bergara Hiria Argazki Lehiaketa** deitu dute Bergarako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Edozein teknikarekin ateratako argazkiak onartuko dira. Bidali lanok honako helbidera, maiatzaren 27a baino lehen: Bergarako Udala; Errotalde kultura etxea; Argazki Lehiaketa; 20570; Bergara. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefonora.

DEBAGOIENA

► **Espainiako gerran fusilatu zituztenen memoria historikoa berreskuratzeko monolitoa** egingo dute, eta horrendako leloa aukeratzeko lehiaketa deitu du desagertuen senideen taldeak. Debagoienean bizi, lan egin edo ikasten duen edozeinek har dezake parte. Gehienez ere 30 hizki izan beharko ditu esaldiak. Esaldia lelo batekin sinatuko da; gero, gutun-azal baten lelo bera idatzi eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina ipini beharko dira. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Mugaeguna: maiatzaren 6a. Erabakia lanak jaso eta hamar egunera jakinaraziko da.

EUSKAL HERRIA

► **V. Amodiozko Gutunen Lehiaketa** deitu dute Manuel Larramendi Kultur Bazkuneak eta Amasa-Villabonako Udalak. 16 urtetik gorako edozeinek har dezake parte. Bidali lanok helbide honetara: Manuel Larramendi Kultur Bazkunea; 44. posta-kutxa; 20150; Amasa-Villabona. Mugaeguna apirilaren 15a izango da.

MUSIKA

BERGARA

► **Albert Pla eta Diego Cortésen** emanaldia izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Techno jaialdia** izango da datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, Jam aretoan, 00:00etan. Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat disko jartzailek hartuko dute parte.

► **Angiolillo eta Goiko Rock** taldeen kontzertua izango da datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

ELORRIO

► **Xabier Montoiak** emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

OÑATI

► **Golpe de Estado, Oñatiko Banda, Txuleton's, Seccion Mortuaria eta Potenkim** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Herriko Plazan, 22:00etan, Ereitten Herri Ekimenak antolatuta.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Marcelino Ruiz** margolariak bere lan berrien (70 inguru) erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Apirilaren 13ra arte izango duzue ikusteko aukera, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan, horrez gainera, 12:00etatik 14:00etara.

► **Fernando Biderbost** margolari bilbotarraren hainbat margolan izango dira ikusgai Maala Errabaleko Arregi markoztatze dendan, gaur, egubakoitza, azken egunez.

BERGARA

► **Azurren *Euskal Txokoak* argazki erakusketa** dago ikusgai Nahikari tabernan, martxo bukaerara arte.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Nerabetasunaren gaineko hitzaldia** egingo du Xabier Tapia adituak datorren martitzenean, martxoaren 31n, Antzuolako Herri Eskolan, 18:30ean.

► **Korrika Txikia** izango da datorren egubakoitzean, apirilaren 4an. Gero txokolate-jana egingo dute.

ARETXABALETA

► ***Sumatra bizirik*** diaporama saioa izango da gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

► **Korrika Txikia** ibiliko da herriko kaleetatik apirilaren 4an, datorren egubakoitzean, arratsalde partean.

ARRASATE

► **Hauteskundeetarako euren proposamena aurkezteko** prentsaurrekoa egingo du Arrasateko herri ekimenak gaur, egubakoitza, udaletxeko idazkaritzan, 18:00etan.

BERGARA

► **Bidebarriko rock jaialdian** esku hartu nahi duten talde guztiek kultura etxean eman beharko dute izena, martxoaren 29a baino lehen. Jai batzordeak erabakiko du gero zein taldek hartuko duten parte jaialdian.

► **Bergarako Orfeoiak batzar orokorra** egingo du martitzenean, hilaren 1ean, Zabalotegi aretoan, 22:00etan.

► ***Lucha de banderizos, quema de Mondragón* hitzaldia** egingo du Jose Angel Achón irakasleak datorren martitzenean, apirilaren 1ean, Miguel Altuna Institutuan, 19:30ean.

► ***Angiolillo vs. Cánovas: Revolución frente a Restauración* hitzaldia** egingo du Juantxo Madariaga adituak datorren eguenean, hilaren 3an, kultura etxean, 19:00etan, Bergara Aurrera herri ekimenak antolatuta.

► **Euskal Herriko hainbat abeslarik eta Bergarako gaztetxoek** areto futbol partidua jokatuko dute apirilaren 2an, eguaztenean, Seminarioan, 17:30ean.

► **Emakumeek euskarari egindako ekarpena** aztertzeko hitzaldia egingo du Idoia Fernández EHUko irakasleak apirilaren 2an, eguaztenean, kultura etxean, 19:00etan.

► **Korrika txikia** pasako da herriko kaleetatik apirilaren 4an, egubakoitzean, 15:15ean.

DEBAGOIENA

► **Naziotasun Eguna** antolatu du Bai Euskal Herriari taldeak etzirako, domeka, Ibarran. Autobusak irtengo dira Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik, 09:00etan. Izena emateko azken eguna bihar izango da, zapatua, herriko tabernetan.

► **Ibarreko Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak** egindako zozketan 0834 zenbakia saritu dute. Saria Karibera bidaia da. Irabazleak dei dezala 677 38 82 47 telefonora.

ELGETA

► **Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten** eskatzeko kale bilkura izango da gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, 20:00etan.

EUSKAL HERRIA

► **Auzolandegietan parte hartzeko** aurrematrikulazio epea zabaldu dute. Apirilaren 4ra arte izango da horretarako aukera, eta telefono honetara deitu beharko duzue, astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 20:00etara: 900 10 05 88. Argibide gehiagorako, jo *www.gazteaukera.net* webgunera.

► **Foru Aldundiak udalekuetarako izenemate epea** zabaldu du. Apirilaren 1era arte egin ahal izango duzue lekuen zozketarako izenematea. Horretarako, jo *www.gipuzkoa.net/oporraldi* web orrira edo zure herriko gazte informazio gunera edo udaleko kultura sailera.

► ***Euskaldunon Egunkaria*-ri** laguntzeko kontu-korrontea dago zabalik: 3035 0092 56 0920055559 duzue zenbakia.

► IKASTAROAK

ERI PSIKIKOEN SENIDEENDAKO FORMAKUNTZA IKASTAROA, ABIAN

Aguifes gaixo psikikoen senideen elkartearen esanetan, Debagoienean "argitara irteten ez den gaixotasun kasu asko eta asko dago", eta "hutsune handia", gaixo horiek behar duten arreta eta atentzioari dagokionez. Informazio falta dagoela sumatzen dute, eta familia horiei zuzendutako ikastaroa antolatu du Aguifes-ek. Bergaran hasiko da, apirilaren 2an. Gaixotasun psikikoak zelan antzeman, gaixotasun motak, dauden tratamenduak… zeintzuk diren azalduko dituzte. Era berean, gaixoaren txertaketa gizartean, aisialdi eta osasun aukerak, komunikazio arazoen konponbideak, gaixoon zaintzaileak, eta holako gaiak landuko dituzte. Izena emateko, deitu Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailera.

Non: Bergaran. **Noiz:** apirilaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean. **Ordua:** 11:00etatik 12:30era.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Taila ikastaroa** antolatu du ARTEk, Arrasateko Tailaginen Elkarteak. Apirilaren 7an hasiko da. Elkartearen egoitzan izango da, Erguin kaleko 7. zenbakian. Izena emateko, deitu, iluntze aldera, honako telefono batera: 943 79 77 57 (Jose Mari) edo 943 03 78 28 (Imanol).

► **Euskal dantza ikastaroa** antolatu du Gaztedia Sailak. Ekainera arte izango da, San Juan jaietara arte, hain

NAROA ENEKOTEGIREN SAIOA OÑATIN

Naroa Enekotegi mezzosoprano eskoriatzar gazteak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Oñatiko Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrera doan izango da. Marcello, Vivaldi, Bellini, Debussy, Haendel… eta beste konposatzaile batzuen piezak eskainiko ditu Naroak.

zuzen ere, egubakoitzero, 19:00etatik 20:30era.

BERGARA

► **Finantza erakundeekin lan egiten ikasteko** Internet ikastaroa izango da KZGunean, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, 18:00-20:00, lehenengo saio batean, eta apirilaren 14 eta 15ean, 11:00-13:00, bigarren batean. Leku kopuru mugatua dago; hortaz, parte hartu nahi izanez gero, deitu 943 76 73 24 telefonora.

OÑATI

► **Informatikaren gaineko hastapen ikastaroa** antolatu du Txandak, Oñatiko Merkatarien elkarteak, apirilaren 2tik 15era, astelehenetik egubakoitzera bitartean. Lekua zehazteke dago, baina ordutegia hau izango da: 14:00etatik 16:00etara. Ikastaroa hogei ordukoa izango da. Interesa duzuenok, deitu Txandara bertara (943 78 04 11 telefonoa) edo Merkataritzari Laguntza Teknikorako Kabinetera (943 79 30 90 telefonoa).

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► ***Bakartxoren zapatila zaharrak* umeendako txotxongilo saioa** eskainiko du Irrintzi taldeak bihar, zapatua, Olaran etxean, 18:00etan.

► ***Ondo esan beharko* antzerki lana** eskainiko dute Ramon Agirrek eta Joxerra Senperek datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, eskolako aretoan, 22:00etan.

ARRASATE

► ***A cuestas con Murphy* antzezlana** eskainiko du Vaiven taldeak etzi, domekan, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

► ***100 años de perdón* antzerki-kafe saioa** izango da gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, 00:00etan. Datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, *Las chicas serias no gustan* antzezlana egingo du Madrilgo Torpedolevel taldeak, leku eta ordu berean.

BERGARA

► ***Trabena-txoua* ikuskizuna** eskainiko du Goaz taldeak gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 22:30ean, … ta segi aurrera plataformak antolatuta.

► ***Urak dakarrena, glu glu glu* antzezlana** eskainiko du Glu Glu taldeak datorren egubakoitzean, apirilaren 4an, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Jacqueline de Barros ipuin kontatzaile** uruguaiarraren emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Unibertsitatean, 22:30ean. Helduei zuzendutako emanaldia da.

Zinema

ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

Mortadelo y Filemón
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Spy kids 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

El jardín de la alegría
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

Domingo sangriento
Eguena, zine kluba: 20:00.

OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

Amor con preaviso
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Scooby Doo
Zapatua eta domeka: 17:00.

Last order
Eguena, zine kluba: 20:00.

EIBAR

■ **UNZAGA**

La presa
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

El hombre sin pasado
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

El núcleo
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

La presa
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

Soldados de Salamina
Egubakoitza eta domeka: 20:00.
Zapatua: 20:00, 01:00.

Utopía
Egubakoitza eta domeka: 20:15, 22:30.
Zapatua: 20:15, 22:30, 01:00.

Chicago
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

El pianista
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

El americano impasible
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

La prueba
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

La prueba
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

The eye
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Mortadelo y Filemón
Egubakoitzetik domekara: 17:15.

Las horas
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

La presa
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Frida
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

El núcleo
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Daredevil
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00.

El pianista
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00.

Lejos del cielo
Egubakoitza eta zapatua: 22:45.
Domeka: 22:30.

Este cuerpo no es el mío
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:45.
Domeka: 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

El oro de Moscú
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

Bowling for Columbine
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

Mi vida sin mí
Egubakoitza eta domeka: 20:15, 22:30.
Zapatua: 20:15, 22:30, 01:00.

Marie-Jo y sus dos amores
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Punch-drunk love
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

La habitación azul
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Gangsters de Nueva York
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

Adaptation, ladrón de orquídeas
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

■ **STER ZINEMAK**

Chicago
Egubakoitza: 18:25, 20:40, 22:55, 01:10.
Zapatua: 16:10, 18:25, 20:40, 22:55, 01:10.
Domeka: 16:10, 18:25, 20:40, 22:55.

El núcleo
Egubakoitza: 19:45, 22:25, 01:05.
Zapatua: 16:45, 19:45, 22:25, 01:15.
Domeka: 16:45, 19:45, 22:25.

La prueba
Egubakoitza: 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Zapatua: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Domeka: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55.

Daredevil
Egubakoitza: 18:05.
Zapatua eta domeka: 15:55, 18:05.

Gangsters de Nueva York
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:15, 00:30.
Domeka: 18:00, 21:15.

Utopía
Egubakoitza eta zapatua: 20:45, 23:00, 01:05.
Domeka: 20:45, 23:00.

El americano impasible
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:25, 00:35.
Domeka: 20:15, 22:25.

La presa
Egubakoitza: 18:15, 20:10, 22:10, 00:15.
Zapatua: 16:05, 18:15, 20:10, 22:10, 00:15.
Domeka: 16:05, 18:15, 20:10, 22:10.

Mortadelo y Filemón
Egubakoitza: 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50.

Este cuerpo no es el mío
Egubakoitza: 18:30.
Zapatua eta domeka: 16:20, 18:30.

El oro de Moscú
Egubakoitza: 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Domeka: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

■ **YELMO CINEPLEX**

El núcleo
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:30, 19:00, 21:30.

Frida
Egubakoitza eta zapatua: 21:40, 00:05.
Domeka: 21:40.

El oro de Moscú
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:20.
Domeka: 12:30, 16:00, 18:00, 20:00, 22:15.

Star Trek: Némesis
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:40.
Domeka: 12:20, 15:30, 17:40.

Amor con preaviso
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:45, 19:40.
Domeka: 12:00, 15:45, 17:45, 19:40.

La presa
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:20, 22:35, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:20, 22:35.

La prueba
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:40, 20:10, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:10, 15:30, 17:40, 20:10, 22:30.

Este cuerpo no es el mío
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 17:55, 19:55, 22:05, 00:10.
Domeka: 12:05, 15:50, 17:55, 19:55, 22:05.

Adaptation, ladrón de orquídeas
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 18:10, 20:25, 22:40, 00:50.
Domeka: 12:20, 15:35, 18:10, 20:25, 22:40.

El americano impasible
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:35, 00:35.
Domeka: 20:15, 22:35.

Mortadelo y Filemón
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 18:05, 20:15, 22:35, 00:50.
Domeka: 12:30, 15:40, 18:05, 20:15, 22:35.

Daredevil
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:45, 19:50, 21:55, 00:10.
Domeka: 12:00, 15:45, 17:45, 19:50, 21:55.

Utopía
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 17:55, 20:00, 22:20, 00:25.
Domeka: 12:05, 15:55, 17:55, 20:00, 22:20.

Chicago
Egubakoitza eta zapatua: 15:35, 17:50, 20:05, 22:25, 00:35.
Domeka: 12:10, 15:35, 17:50, 20:05, 22:25.

Las horas
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:35, 19:55, 22:10, 00:20.
Domeka: 12:05, 15:30, 17:35, 19:55, 22:10.

Gangsters de Nueva York
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:30, 23:30.
Domeka: 12:15, 15:35, 18:45, 22:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

Lejos del cielo: ●●●● / ***Las horas:*** ●●●● / ***Los lunes al sol:*** ●●●● / ***A propósito de Schmidt:*** ●●● / ***Atrápame si puedes:*** ●● / ***Gángsters de Nueva York:*** ●●● / ***Chicago:*** ●●●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

MI VIDA SIN MÍ

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Isabel Coixet.
AKTOREAK: Sarah Polley, Mark Ruffalo, Debbie Harry.

Isabel Coixet-ek publizitatean eta zineman egiten du lan. Sarritan, hark egindako iragarkiak ikusteko aukera izaten dugu, eta zineman, *Mi vida sin mí* Coixet-ek zuzendutako laugarren lana da. Film honetan, bi alaba dituen 23 urteko neska batek, sendagilearengana joan ondoren, bere bizitzarekin hilabete gutxitan bukatuko duen minbizia duela jakingo du. Gazte horrek arazoari aurre egiterakoan jasaten dituen gogo-aldarte desberdinak (hasierako *shock*-a, amorru uneak, eta gertatzen ari denaren onarpena) erakusten dizkigu filmak. Minbizia duela-eta, bi erabaki hartuko ditu: alde batetik, bikotekidearen, bi alaben, gurasoen eta maite dituen pertsonen bizitza bide onetik bideratu eta jasango duten mina baretzen saiatu; bestetik, bizitzan bete barik zituen esperientziak ezagutu (maitale bat izango du, oso ederra izango den amodio istorio baten).

Ikus daitekeenez, film honek ukitzen duen gaia nahiko mingarria da. Kontaketa motza garatzen du. Horri Coixet-ek zinema independentearen itxura eman nahi dio, baita hainbat egile-ukitu ere. Ezaugarri horiek ez daude oso ondo erabiliak eta filmaren balioari oztopo egiten diote. Gutxi zaindutako irudien estetika

sortu nahi du: kamera behin eta berriz kulunkatu egiten da, oso modu arraroan enkoadratutako planoak daude, eta abar. Zuzendariak sortzen duen ikus-erretorika horrek ez dio istorioari mesederik egiten. Pertsonaiengana hurbiltzen denean eta horiei sentipenak islatzea uzten dienean (aktoreak oso ondo zuzenduak daude), zuzendari sentikorra dela erakusten digu Coixet-ek. Une horietan ikuslearen bihotzera heltzen da. Baina filmak beste akats bat du: eszena batzuetan, istorioaren drama zelanbait baretu nahian, biziak diren eszenak sortzen dituzten pertsonaiek (María de Medeiros-ek edo Amanda Plumerrek egiten dituzten rolak) ez diete istorio nagusiari ezer ematen.

Azken baten, oso lan interesgarria da. AEBetako zinema independenteari egiten dion hurbilketa artifiziala orrazten badu, oso film onak egiteko ahalmena duen zuzendaria dela erakusten digu.

ANTONIO ZABALA

INMO f3 inmobiliaria
SARE

Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

ETXEBIZITZAK

ARRASATE
• Oso eguzkitsua. 115 m². Lau logela, bainugela bi, egongela, sukaldea, sotoa eta garajea. Igogailua eta berogailua. Erdialdean.
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.

BERGARA
• 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

ANTZUOLA
75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.26.800.000 pta.

ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.

ALOKAGAI

• **Arrasate.** 7 logela, 10 ohe, berogailua, egokitua. Langileendako egokia.

GARAJEA

• **Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan erdialdean.

KOLDROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

BERGARA / Etxebizitzak salgai
• Koldo Elizalde 85 m²
BERGARA / Tabernak salgai eta errentan
BERGARA / Lokalak salgai eta errentan
BASERRIAK
• Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
• Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.
Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.

OÑATI
ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI 943 71 60 91

ARETXABALETA
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI. 943 77 03 08

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Apartamentua ematen da errentan erdialdean. Berri-berria. Igogailua eta berogailua. 680 67 33 88.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. 113 m². Hiru logela, komun bat, sukaldea, despentsa eta "hall"-a. Berogailua, igogailua eta garajea. 943 79 23 58.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Andres auzoan. Hiru logela (berrituta), sukaldea eta bainugela. Azpialdean eraberritutako lokal bat dago, bulego edo denda moduan erabil daitekeena. Etxebizitza eta lokala elkarri lotzeko aukera. Gauez deitu. 943 79 96 39 edo 945 60 81 79.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Josepe kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, gas naturala, berogailua, sotoa eta igogailua. Guztiz berrituta eta eguzkitsua. 943 77 16 19 edo 676 05 53 40.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. 943 76 31 49.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OÑATI
ILEAPAINDEGI BATEN LAN EGITEKO PERTSONA BEHAR DUGU. 943 78 15 90

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN TABERNAN LAN EGITEKO. 652 70 82 46

ARETXABALETA
SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO. 652 70 82 46

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO. 606 67 02 68

ARRASATE
ZERBITZARIA ETA SUKALDARIA BEHAR DIRA KAFETEGI BATEN LAN EGITEKO. 656 74 78 23

Donostia. Etxebizitza handia salgai, Unibertsitatetik eta Pakeatik gertu. Terraza handia eta bi autorendako garajea. Oso eguzkitsua eta lasaia. Oso aukera ona. 943 21 18 55 edo 607 71 71 55.

Donostia. Etxebizitza salgai Gros auzoko Karkizano kalean. 56 m². Berrituta eta hornituta. Eguzkitsua. Igogailua dauka. 282.475 euro. 620 28 39 16.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Zigorrola auzoan. 943 77 03 25.

Benidorm (Alacant). Apartamentua ematen da errentan hondartzako lehenengo lerroan. Itsasoari begira. 630 41 84 65.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 943 76 17 74.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Koldo Elizalde kalean. Deitu 20:00etatik aurrera. 615 76 21 02.

Laredo (Kantabria). Etxebizitza ematen da errentan udan, abuztuan izan ezik. 943 76 44 34.

Somo (Kantabria). Etxebizitza ematen dut errentan oporretan, Aste Santuan eta aste burkaeretan. Hondartzatik 50 metrora. 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 629 96 74 33 edo 656 75 05 97.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Neska edo mutila behar dut etxebizitza osatzeko. Monika. 649 62 23 07.

Arrasate. Lagun bat behar dugu etxebizitza osatzeko. 669 57 88 51.

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan, bakarrik edo beste neska batekin bizi izateko, San Andres edo Erguin aldean. 652 75 08 07.

Arrasate. Neska/mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Eskolatik gertu. 943 79 91 25.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Araba ibilbideko 27an. 20 m2. 943 79 69 83 edo 627 90 68 91.

Arrasate. Garaje itxia salgai Ferixalekuan. 646 53 59 51.

Arrasate. Garaje itxia salgai Musakola auzoan. 652 73 70 49.

Bergara. Garaje itxia salgai Ozaetan. 943 76 00 12.

Eskoriatza. Garaje itxia salgai Intxaurtxueta auzoan. 646 66 58 54.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Motoak eta bizikletak uzteko aproposa den garajea ematen da errentan. 943 79 86 72.

Arrasate. Garaje plaza bat ematen da errentan Uribe auzoan. 657 72 51 65.

Arrasate. Garajea ematen da errentan Kontzezino kalean. 658 72 09 87.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Bergara. Lokala salgai Zabalotegin. 943 76 40 24.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Lokal komertziala ematen da errentan Koldo Elizalden. Biltegi moduan erabil daiteke. 943 76 37 69.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 657 70 09 59.

Bergara. Emakumea behar da gauetan emakume nagusi bati lagun egiteko. 943 76 10 92 edo 943 76 14 18.

Bergara. Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 13:00etatik 14:00etara. 943 76 18 11.

ZERO KILOMETROKO AUTOETAN ESKAINTZA BEREZIAK

• Focus TDdi	02	• Fusion 16 i	03
• Focus TDdi	02	• Fiesta TDCi	03
• Focus 16 i	02	• Conect TDCi	03
• Focus 18 i	02	• Transit TDi	03
• Mondeo 18 i	03	• Focus ST-170	03
• Mondeo TDdi	03		

MUGARRI
943 79 75 64

402. ESKAERAK

Arrasate. 17 urteko hiru neska ekainean lan egiteko gertu. 625 70 84 94.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakume gaztea gertu etxeko lanak egiteko, orduka. 639 65 94 44.

Arrasate. Emakumea gertu lan egiteko, goizez, ordu batzuetan. 943 79 74 30.

Arrasate. Neska gaztea gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko. 645 70 03 19.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, astelehenetik egubakoitzera. 696 84 19 51.

Bergara. Lehen Hezkuntzako eskolak emango nituzke. Irakasle ikasketak egin ditut. 669 33 95 93.

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago. Carlos. 679 20 99 24.

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago. Israel. 678 95 09 77.

Debagoiena. Neska bat egun erdiz lan egiteko gertu. 667 80 63 97.

Debagoiena. Neska gaztea gertu edozein garbiketa lan egiteko. 943 76 54 46.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta-Arrasate. Batxilergo Teknologikoko lehenengo mailako eskola partikularrak behar ditut. 943 77 08 30 edo 620 28 32 63.

Ekonomia gaineko eskola partikularrak jaso nahi ditut. Humanitate eta Enpresa ikasketetako 1. maila ikasten ari naiz. 652 76 64 95.

502. EMAN

Arrasate. Irakasle ikasketak dituen neska gertu eskola partikularrak emateko. Ixone. 653 71 87 32.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4/110ZP autoa salgai. 118.000 Km. 1998koa. 14.000 euro. 639 37 91 51.

BMW F650/ST motoa salgai. Oso ondo dago. Prezio ezin hobea. 696 21 55 75.

Gas gas Enducros/250cm3 motoa salgai. 1998koa. 620 73 99 18.

Honda XR motoa salgai. 250 cm3. 1999ko modeloa. Ondo dago. 605 71 26 89.

Kawasaki GPX/600 motoa salgai. Ondo dago. 900 euro. 605 71 24 73 edo 943 76 64 01.

Opel Astra Caravan salgai. Diesela. Matrikula: SS-AT. 620 61 91 34.

Opel Corsa 1400/16v/90ZP salgai. 2001eko abendukoa. 7.530 euro. Mari Jose. 943 76 37 61.

Opel Kadett autoa salgai. Matrikula: SS-AH. 1.200 euro. 943 76 52 48.

Opel Kadett autoa salgai. Oso merkea eta kilometro gutxi. IAT (ITV) urte osorako. Deitu damutu baino lehen. 699 11 83 63.

Peugeot 306/XSDT/3P autoa salgai. Lau urte ditu. Garajean gordeta. 6.600 euro, negoziagarriak. 686 97 62 73.

Range Rover Turbo Diesela salgai. 1988koa. Ondo dago. Prezioa: 2.800 euro. Arratsaldez deitu. 653 74 96 66.

Renault 21 autoa salgai. Diesela da eta 11 urte ditu. 943 79 22 79.

Rieju RJ 50 motoa salgai. Prezio onean. 669 13 31 08.

Peugeot 205 GRD diesela salduko nuke. Itxura ona, eta ondo dago. 1.200 euro. 617 05 07 58.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Arrasate. Danok Bat elkarteko (Roneoko etxeetan) bazkide plaza bat salgai. 1.800 euro. 943 01 04 81.

Bergara. Habia-ohea eta kaxoi-altzaria salgai. 943 76 15 76.

Berogailua, butanozkoa, salgai. Prezio onean. 943 76 16 58.

Citroën Xsara berriarendako hagunak (llantak) salgai. 300 euro. Xabi. 615 79 79 21.

Ispilua eta egonkorgailuak salgai. Karabanarendako. Berriak. 639 31 16 35.

Kutxa handi bat saldu nahi dut. 130 cm luze eta 60 cm zabal. Prezio onean. 943 76 16 58.

Mendiko eskiko botak salgai. Dynafit markakoak. Neurria: 37. Berriak. 680 29 73 64.

Ohe elektronikoa salgai. Nagusiek edo ezinduek maneiatzeko gertatua. Neurriak: 1,90 m luze eta 0,90 m zabal. Berria. 606 86 71 97.

Piragua salgai. Errekan ibiltzeko edo surfean egiteko, bietarako balio du. Josu. 954 44 34 11.

Solariuma salgai. Bertikala da. Gorputzerako 28 lanpara eta aurpegirako bat. Ondo dago. 669 42 64 00.

Trek 8100 mendiko bizikleta salgai. 676 66 08 98.

WR2 jokoa salgai. PlayStation II-rako. 40 euro. 646 08 24 59.

802. EROSI

Tamaina txikiko akordeoi kromatikoa erosiko nuke. 943 76 31 10.

Egunkaria aurrera!

Orain! Inoiz baino gehiago euskarak behar zaitu.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Elkartasunerako kontu korrontea
k/k 3035.0014.62.0140053171

Topagunea EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA

Kontu hau Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak ireki du: euskalgintzak jasandako kalteei aurre egiten kolaboratzea eta euskaldunok informatuta izateko dugun eskubidea bermatzen laguntzea du helburutzat diru bilketa honek.

Egin zaitez harpidedun

Dagoeneko baldin bazara ez bete

Izen abizenak _____
Helbidea _____ P.K. _____
Herria _____
Telefonoa _____
k / k _____
N.A _____
Jaioteguna _____ lanbidea _____

Eman zure herriko batzordeari edo bidali helbide honetara: Martin Ugalde Kultur Parkean, eraikin zuria, 20140 ANDOAIN. Bestela 943 30 35 55 / 943 30 35 54 telefonoetara deitu.

AIPAGARRI

Iban Galan

ARRASATE



Iban Galan izan da 2002. urteko Aukea saria jaso duenetako bat. Besteak beste, junior mailako Euskadiko txapelduna izan zen iaz 18 urteko karateka gazte hau. Iban Galanekin batera, Joxe Arriaran pilotari ohia eta Debagoieneko Zikloturista elkartea izan dira aurtengo beste bi sarituak.

Jon Markaide

ELGETA



Zientzia Zehatzen, Fisikoen eta Naturalen Akademiak elgetar astrofisikari honen lana baloratu du, eta bera izan da Real Academia de Ciencias delakoan sartu den Estatuko lehen pertsona. Bera izan zen, gainera, Espainiako Astronomia Elkartea sortu zuena ere. Valencian bizi da gaur egun.

Marcelino Ruiz

ARRASATE

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute Marcelino Ruiz pintore mondragoetarraren erakuske-ta Arrasateko Harresi aretoan, eta apirilaren 11ra arte egongo da zabalik. Marcelinoren 68 margolan jarriko dituzte hantxe ikusgai, pastelak eta olioak horietako gehienak.

JAIOTAKOAK

Luka Demestri Filiberto. Oñatin, otsailaren 21ean.

Lisvett Salas Florez. Arrasaten, martxoaren 13an.

Ibon Iglesias Murgiondo. Antzuolan, martxoaren 13an.

Aimar Aranbarri Zuazubizkar. Arrasaten, martxoaren 18an.

Larraitz Fernández Heriz. Arrasaten, martxoaren 19an.

Ander Izurrategi Loidi. Eskoriatzan, martxoaren 20an.

Mikel Martínez Ozaeta. Aramaion, martxoaren 20an.

HILDAKOAK

Julian Bengoa Jainaga. Aramaion, martxoaren 15ean. 82 urte.

Cruz Zugazaga Ormaetxea. Arrasaten, martxoaren 19an. 79 urte.

Francisco Bonache Roa. Arrasaten, martxoaren 20an. 43 urte.

Baltasar Benítez Izquierdo. Bergaran, martxoaren 21ean. 77 urte.

Jose Maria Lasa Urrutia. Arrasaten, martxoaren 21ean. 81 urte.

Josefa Hernández Morales. Arrasaten, martxoaren 21ean. 79 urte.

Jose Luis Belategi Trojaola. Arrasaten, martxoaren 26an. 72 urte.

Ignacio Arzamendi Iza. Arrasaten, martxoaren 26an. 72 urte.

Pedro Eguren Eguren. Bergaran, martxoaren 26an. 80 urte.

Geronima Guisado Rodríguez. Aretxabaletan, martxoaren 26an 97 urte.

Ander Izurrategi Loidi
Eskoriatza • Martxoaren 20a • 3,150 Kg. Gurasoak: **Arantzazu Loidi** (Aretxabaleta) eta **Mikel Izurrategi** (Eskoriatza). Argazkian, umea amaren besoetan.

Iraultza Ostolaza Lacuesta
Soraluze • Martxoaren 20a • 4,200 Kg. Gurasoak: **Larraitz Lacuesta** (Soraluze) eta **Mikel Ostolaza** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.



Larraitz Fernández Heriz
Arrasate • Martxoaren 19a • 3,900 Kg. Gurasoak: **Ikerne Heriz** (Arrasate) eta **Joakin Fernández** (Ondarroa). Argazkian, umea amarekin eta **Olatz** ahizparekin.

Nayla Pérez Viñaras
Bergara • Martxoaren 23a • 3,495 Kg. Gurasoak: **Yolanda Viñaras** (Elgoibar) eta **Francisco Pérez** (Elgoibar). Argazkian, umea gurasoekin.

Mikel Martínez Ozaeta
Aramaio • Martxoaren 20a • 3,100 Kg. Gurasoak: **Roman Martínez** (Arrasate) eta **Arantza Ozaeta** (Aramaio). Argazkian, Mikel umea amarekin.



Magali Armendariz Lete
Eskoriatza • Martxoaren 25a • 4,150 Kg. Gurasoak: **Aitor Armendariz** (Eskoriatza) eta **Susana Lete** (Arrasate). Argazkian, umea aitaren besoetan.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa:
Goienkaria: 75 €.

Gotzone Arrese aretxabaletarra eta **Niko Uribarren** mondragoetarra bihar, zapatua, ezkonduko dira. Eskoriatzako **Mendiola** auzoko elizan egingo dute ezkontza elizkizuna, eta ondoren bazkaria egingo dute lagun eta senitartekoekin batera. Ezkonbidaian, berriz, Costa Ricara joango dira. **Zorionak**, bikote, lagunen eta familia osoaren partez, eta ondo ondo pasatu **Costa Rica** aldean!



II. URTEURRENA

Pedro Mari De Diego Martínez

2001eko martxoaren 31n hil ziren, moto istripuz, Gasteizen.

Nerea Kortabarria Amores

"Gogorra izan da gehiago ez ikustea baina bizi garen artean ez zaituztegu ahaztuko. Gure oroimenean zuen irudia ez da inoiz faltatuko eta bihotzez eta sinismenez ez zarete hilko betiko."

ZUEN LAGUNAK
Javi eta Marijo, Julio eta Esti, Jesus, Jose, Jorge, Jon eta Susi.

ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

ZAPATUA, 29

Asteburuarekin batera, eguraldi onari agur esan beharko diogu. Egun lainotsua izango dugu zapatua, eta baliteke euri txikia egitea ere. Ekaitz arriskua izango dugu, gainera, zapatuan. Dena dela, tenperatura ez da aldatuko. Haizea, berriz, mendebaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera:
Egun lainotsua.
Errioxa: Ekaitz arriskua.
Pirinioak: Eguzkia eta euria.

DOMEKA, 30

Domekan ere ez dugu eguraldi hoberik izango. Zapatuan antzera, lainoak izango ditugu nagusi domekan ere; euririk ere ez zaigu faltako, tarteka, euri txikia egingo du. Ipar haizea izango dugu; dena dela, giroa ez da hoztuko, tenperatura ez da aldatuko.

Nafarroako Erribera:
Lainoak eta ostarteak.
Errioxa: Euri txikia.
Pirinioak: Egun euritsua.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

14,2º C

ILARGIAREN ALDIAK: MARTXOA

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
3	11	18	25

EGUZKIA: MARTXOAREN 30a

Sortu	Gorde
07:54	20:31

URKULUKO URTEGIA

Azkeneko bi astetan izan dugun eguraldiarekin, dezente egin du behera Urkuluko ur mailak. %95,72 zen ur maila; oraingo astean, berriz, %91,43.

%91,4

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

MEZAK

Astegunetan
08:30, 12:00.
Zapatuetan
08:30, 12:00, 19:30.
Domeka eta jaiegunetan
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

BEHARREZKO TELEFONOAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrialdiak)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 76 53 40
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospitalea	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 76 24 40
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Abere hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elkartea	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Kapirixo	943 71 63 23
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
Arrasate / AED	943 77 12 28
Aretxabal. / Loramendi	943 77 09 70
Bergara / Jardun	943 76 08 19
Eskoriatza / Axtroki	943 71 54 34
Oñati / Laixan	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

ZENBAKI SARITUAK

BONOLOTOA

EGUAZTENA 26	MARTITZENA 25	ASTELEHENA 24	EGUBAKOITZA 21
07 • 09 • 24 25 • 27 • 49	04 • 08 • 13 35 • 43 • 45	11 • 17 • 19 24 • 26 • 33	17 • 24 • 27 31 • 35 • 36
OSAGARRIA: 37 ITZULKETA: 9	OSAGARRIA: 10 ITZULKETA: 5	OSAGARRIA: 22 ITZULKETA: 5	OSAGARRIA: 03 ITZULKETA: 0

LOTERIA PRIMITIBOA

Saritzarra DOMEKA 23	ZAPATUA 22	EGUENA 20
03 • 05 • 12 14 • 28 • 38	05 • 10 • 17 30 • 39 • 42	05 • 09 • 18 32 • 34 • 35
OSAGARRIA: 32 ITZULKETA: 1	OSAGARRIA: 32 ITZULKETA: 1	OSAGARRIA: 38 ITZULKETA: 5

ONCE

EGUAZTENA 26	MARTITZENA 25	ASTELEHENA 24	Superkupoia DOMEKA 23	Kupoitzarra EGUBAKOITZA 21	EGUENA 20
57.623 (026 seriea)	**77.918** (011 seriea)	**00.824** (004 seriea)	**56.677** (049 seriea)	**96.414** (077 seriea)	**23.527** (041 seriea)

Erakunde hauen laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundia · Eusko Jaurlaritza

Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Aretxabaletako Udala · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Elgetako Udala · Eskoriatzako Udala · Leintz Gatzagako Udala · Oñatiko Udala

BIZI-POZA/MARTXOA

TELEFONIA

Fakturan %25 aurrez daiteke, telefoniako operadorea aldatuta

Azken urteotan telefonia asko aldatu da. Poltsikoko telefonoen indartzearekin batera operadore berriak agertu dira eta telefonia finkoa liberalizatu. Oraindik nagusi bada ere, Telefonicari lehiakide gogorrak azaldu zaizkio. Kontsumitzaileek, ordea, eragozpenak izaten dituzte operadorea aldatzeko. Oraindik askok ez daki beste konpainia baten alta ematea doanekoa dela. Gainera, ez da kuota finkorik ordaindu behar. Hau da, egindako deiak besterik ez da ordaintzen. Telefonica ez den beste bat aukeratuz gero, hilean zazpi euro aurrez daitezke. Txostenaren arabera Aló da operadore merkeena eta konpainia horrekin fakturan %25 aurrez daiteke Telefonicaren fakturarekin konparatuz gero.

OSASUNA

Osasuna babesten duten eskubideez oso gutxi dakite pazienteek

Hiritarron eskubideen artean osasuna babesten dutenak apenas ezagutzen ditugu. Medikuntza-prozesu jakin batek gure osasunean izan dezakeen eragina, gure osasun egoeraren gaineko xehetasunak gure sendagileak eta guk erabakitzen ditugun pertsonek bakarrik ezagutzea, beharrezko botikak lortzea... Horiek dira eskubideetako batzuk. Osasunarekin zerikusia duten eskubideak bete ezean Pazientearen Ardurarako Zerbitzura, erabiltzaile-elkarte batera, Insalud-era, Autonomia Erkidegoko organismora edo Espainiako Osasun Ministeriora jo daiteke osasun sistema publikoaren kasuan. Eta medikuntza pribatuan gertatuz gero, berriz, zentroko arduradunarengana, erabiltzaile-elkarteren batera, Osasun Kontseilaritzara edo zerbitzua kontratatu zuen medikuntza-elkartera.

ELIKADURA

Ogia neurrian jateak beharrezko energiaren erdia emango dio gorputzari

Behar dugun energiaren erdia karbohidratodun janarietatik dator (pasta, arroza, ogia, patata, lekariak...). Askoren ustea da elikagai horiek loditu egiten dutela, eta horren ondorioz elikagaion kontsumoa oso eskasa da. Adituen esanetan, eguneko jatordu guztietan jan beharko lirateke karbohidratoak. Ogi gutxi jatea mehetzeko modua izan daitekeela uste dute askok, baina oker daude, ogi gutxiegi jateak dieta desoreka lezake-eta. Ogi artean edo honekin bustita jaten denak loditzen du, ez ogiak berak.

INTERNET

Kontsulta juridikoak egiteko webgunea jarri du abian Europako Batzordeak

Europako hiritarrek nazioarteko eta Europako Batasuneko herrialdeetako arau juridikoak jakin ahal izango dituzte laster Internet bidez. Izan ere, Europako Batzordeak webgunea jarri du abian kontsulta juridikoak egiteko. Besteak beste, lan kontratuak, bidaiak, kontsumoa eta ezkontzak landuko dituzte.

Eroski Taldea Fundazioaren laguntzarekin

HITZGEZIDUNAK

Luma



		* Izena Ez estu		Handi Barkazioa		Laborariaren tresnak
		Japoniako hiria Bi ken bat				
Animalia mota Itsas produktuak		Albiste * Deitura				
Gorotza Gizon izena					Potasioa Danbor mota	
		Sortu zintuena Gauerokoa				Bokala
Etxartea	150 Haragia		Juntagailua Kontsonantea			
						Pl., barazki mota
Suari dariona Zerga ezaguna			Apaizen aita Su			
		Kontsonantea Azkena eta lehena		Lehena eta azkena Iridioa		
50 Itsusiak		Nekeza Kontsonantea				

BILABILA7

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

URA EDATEN ARDANTZAN

Egun baten ikusi dau Txanboliñek *Kaporala* Ardantzako ura edaten.

- Ze, *Kaporala*, ura edaten?

- Bai, atzo au eiñ banajuan, oiñ ez najuan eiñ biarrik eukiko. Ta eu nora oia, Txanboliñ?

- Mendira, ia ibilixaz meetzen naizen.

- A, *Txanboliñ*, meetzera mendira? Etorri ari ni apopillo nagon lekura, an meetuko aiz laister!

KLIENTE BAT GITXIAGO

Kaporala ta beste bere lagun bat oitxuta zegozen *Mototx*-enian esaten pagau barik. Beti, baiña, zeuken aitzakiren bat epetan edateko. Aspertuta, egun baten, *Mototx*-ek esan zetsen:

- *Kanpora* emendik! Edan eta sekula pagau ez!. Alan dok ala?

Eta, urtetzerakuan, Kaporala-k.

- I, *Mototx*, euretzat txarrago: bi kliente gitxiago daukaz.

ENPRESI RABAZI

Beiñ, Eibarko Astelena pelota lekuan, finaleko partidu famatu bat jokatu zan jende izugarrixakin. Partidua amaitxu eta urtetzerakuan, Isasi kaletik bera zioian batek galdetu detsa:

- Punteret, nork irabazi jok?

Eta honek:

- Enpresiak!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zenbat zubibide berri egin dira Maltzagan?

Aurtengo udaberrian zabaldu nahi zuten Eibar-Gasteiz autobidearen Bergaratik Maltzagarako zatia. Zati horrek bederatzi zubibide ditu guztira; horien artean, orain dela gutxi arazoak eman zituen Larreategiko zubia, Soraluzen dagoena. Baina gaurko galdera hau da: bederatzi zubibide horietako zenbat egin dituzte Maltzagan autobide berriaren eta A8aren lotunean.

• 3
• 8
• 4
• 6

Erantzun zuzena: 6 zubibide egin dituzte Maltzagan.

SOLUZIOAK





ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Zortea alde izango duzu aste osoan, eta dena ondo irtengo zaizu; edozelan ere, esfortzutxoa egin beharko duzu zer edo zer produktiboa ateratzeko. Bestalde, zorizko jokoetan ere zortea alde izango duzu.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Bikotekide egonkorra badaukazu, komunikazio arazoak direla-eta zuen arteko harremana hoztu egingo da. Bestalde, ahalegin zaitez kontraturik ez sinatzen, eta halabeharrez sinatu behar baduzu, ondo irakurri bertan ipintzen duena, zu engainatzen ahaleginduko dira-eta.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Muturreko aldaketak egiten hasiko zara, eta zure ingurukoek igarri egingo dute; are gehiago, beldurtu egingo dira. Baina egin beharreko aldaketak dira. Bestalde, betidanik izan dituzun hainbat gauza bota egingo dituzu.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Jarrera aldakor eta oldarkorra izango duzu, eta arazoak izango dituzu hartu-emanetan. Hori ekidin gura baduzu, ondo pentsatu esaten duzuna. Bestalde, estresak eragindako tripako min handia.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Ideia eta kontzeptu berriak sartuko dira zure bizitzan. Hala, horien gainean pentsatzen eta meditatzen hasiko zara. Bestalde, bidaiatxo bat egingo duzu, eta oso onuragarria izango da alderdi guztietan. Azkenik, seme-alabekin hartu-eman emankorra.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Zure bizitzako alderdi guztietan ordena ipini gura duzu. Bestalde, osasun arazoak izango dituzu; hori dela eta, hainbat egun ohean eman beharko dituzu eta dieta zaindu egin beharko duzu.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Arazoak bikotekidearekin; izan ere, uste duzu hark ez zaituela konprenitzen. Bestalde, gizon edo emakume izan, arazoak izango dituzue sexu-organoekin, eta medikuarenera jo beharko duzue.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Arazoak lagunekin eta senideekin; izan ere, besteren etxean sartzeko joera daukazu, eta hori ez dute ondo hartuko. Horren harira, oso urduri egongo zara eta behin eta berriro eztabaidan ibiliko zara. Lasai zaitez.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Etorri handia duzunez eta komunikatzeko oso iaioa zarenez, edozein egoeratatik aise irtengo zara. Bestalde, gehiegikeriak egingo dituzu eta hainbat arazo sortuko zaizkizu, batez ere, pisuarekin.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Gauzak zuk bakarrik egin gura dituzunez, arazoak izango dituzu jendearekin lanean hasten zarenean. Horren harira, argi ibili zer eta zelan esaten duzun, arazo larriak izan zenitzake-eta. Bestalde, abiada murriztu errepidean.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Zure hileroko aurrekontuak kolpe ederra jasoko du, etxean hainbat berrikuntza-lan egin beharko dituzu-eta. Bestalde, hainbat harreman izango dituzu era berean; hala, bikotekide egonkorra baduzu, zuenak egin du.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Amets egiten ibiltzea eta errealitateari bizkarra ematea ez dira bidelagun on. Horren ondorioz, arazoak ekarriko dizkizuten pertsonekin nahastuko zara. Etxez, eta, are gehiago, herriz alda zenezake.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

‘Astebete’
EGUBAKOITZA/ **20:30**

Leintz Gatzaga, etorkizunari begira

Gatzagan gaur bertan inauguratu duten denda ikusteko aukera eskainiko du *Astebete*-k. Herria suspertzeko proiektuaren kudeatzaileak orainaz eta geroaz mintzatuko dira.

‘Iparrorratza’
MARTITZENA/ **20:30**

Hego Amerikako bi lurraldetan zehar

Batez ere bizikleta izan zuen garraiobide nagusi Iñigo Eraunskin ataundarrak. Peru eta Ekuador zeharkatu zituen. Martitzenean Julenekin batera izango dugu *Iparrorratza* saioan.



‘Sarrera doan’
EGUENA/ **20:30**

Proposamen ugari datorren aste bukaerari begira

Ekintzaz beteta dator hurrengo astea: Korrika, Eskoriatzan jai antimilitarista eta Arrasaten *Egunkaria*-ren aldeko kontzertua. Guztiaren gaineko informazio zabala eskainiko dizuegu.

‘Iluntzean’
EGUENA/ **21:15**

Arantxa Iturbe kazetari eta idazlearekin solasean

Askori bere aurpegia baino ezagunago egingo zaizue bere ahotsa; izan ere, gaur egun Euskadi Irratiko esatari dugu. Eguenean. berriz, aurrez aurre ezagutzeko aukera izango duzue.

TELEBERRIAK

‘Herrilan’ saioaren azken atala apirilaren 9an

Herrilan saioak hamabigarren eta azken atala izango du hurrengoa. Apirilaren 9an esango digu agur, eta okasiorako Arrasateri eskainiko dio saioa. Han izango da Xabier Zubizarreta alkatea, beste zinegotzi batekin batera, Alberto Gorritibereak aurkezten duen saioan. Udal hauteskundeak begi bistan ditugula eta, eten egingo ditu emanaldiak, hortaz, *Herrilan*-ek datorren ikasturtera arte.
Edozelan ere, eguaztenean Angel Iturbe Oñatiko alkatea izan zen *Herrilan*-en, eta saioa ikusteko aukerarik izan ez zenutenok asteburuan daukazue beste aukera bat.

Hamaika aurpegi ezagun ‘Iluntzean’ saioan

Goiena Telebistak asmatu du *Iluntzean* saioarekin: ondo egindako elkarrizketak dira, egoki aukeratu eta asko esateko izan dezaketen elkarrizketatuekin. Orain arte Julio Ibarra, Txaro Arteaga, Abraham Olano eta Igor Elortzari egindako elkarrizketak ikusteko aukera izan dugu; azken hori aste bukaeran berriro ikusi ahal izango dugu. Hurrengo asteotan GOITBko platotik pasatuko diren beste batzuk, honako hauek: Arantza Iturbe, Anjel Alkain, Mikel Urdangarin, Alberto Iñurrategi, Iñazio Oliveri, Jose Elorrieta eta Maddalen Iriarte, besteak beste.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Martxoaren 28tik apirilaren 3ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 28	ZAPATUA 29	DOMEKA 30	ASTELEHENA 31	MARTITZENA 1	EGUAZTENA 2	EGUENA 3
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik tertulia 14:30 e-debagoiena 15:00 Herrilan 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Igor Elortza 17:00 Soinuz blai 17:30 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik tertulia 14:30 e-debagoiena 15:00 Herrilan 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Igor Elortza 17:00 Soinuz blai 17:30 Astebete	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harrmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iparrorratza 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Iparrorratza 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Iparrorratza 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Gazte-borraste 21:00 Gaurkoak 21:15 Gazte-borraste 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Gazte-borraste 23:00 Gaurkoak 23:15 Gazte-borraste 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Gazte-borraste 14:30 Berriak 15:00 Gazte-borraste 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:30 Emisio hasiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:30 Astebete	14:30 e-debagoiena	15:00 Herrilan	20:30 Harmailatik	20:30 Iparrorratza	21:00 Gaurkoak	20:30 Sarrera doan

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

Adi,
GOITB Oñatin UHFko 28.
kanalean!

GOITB etxean sintonizatzeko arazorik baduzu, jar zaitez zure ohiko antena-teknikariarekin harremanetan.

Goitb Goiena Telebista
Ikusiko duzu!

TELEBEGI/ Unai Loidi

Fikzioa

Oraintsu arte, errealitateak fikzioa gainditzen duela entzutean, ez nuen ondo ulertzen zer esan nahi zuten. Aznarri Bushen arrantxoan Texasko azentuarekin berbetan entzun arte izan da hori. Canal Plus-en giñoletako esketx bateko egoera ematen zuena, errealitate deitzen diogunetik hartutako puska bat zen, barregarria oso, baina T5eko albistegian ikusia.

Ordutik, ohitura hartuta daukat, egunari akabera emateko latexezko txotxongiloen albistegia ikustea, pantaila kodifikatu baino minutu batzuk lehenago. Eta benetan uste dut oso ariketa informatibo sanoa dela hau, batik bat Iraken kontrako erasoa hasi zenetik. Gaueko bederatzi eta erdiak arte zapping eginaz gerra parteak jarraitu, Kongresuko eztabaidak entzun eta kaleko manifestazioak ikusi ondoren, latexean fabrikatutako bertsioa gerturatzen da zuzenen errealitatera. Giñolak erakusten du ondoen errealitatea, fikziozkoa ematen du-eta aspaldian.

Bideokamera digitalak **Argazki-kamera digitalak**

Gorde zure ametsak

Elektragailuak / TB / Hi-Fi / Beep Informatika

MILAR ELKORO

Olarte, 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 18 86
Faxa: 943 77 09 36

BETE POSTALA ETA BIDALI!

Ezagutu 'Argia' astekaria

Aurreko astean iragartzen genuen bezala, GOIENKARIAren ale honekin batera, *Argia*-ren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu, Argia astekariak bere burua ezagutzera emateko aurrera daraman kanpainaren barruan.

Argia-ren 3 ale horiek jaso nahi baldin badituzu, beraz, postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, 943 37 15 45 telefonora deitu (Edurnez galdetu) edo zure datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali.

Euskal prentsak bizi duen une zail honetan, denok eskain genezakeen laguntzarik onena, hain zuzen ere, hauxe da: euskarazko egunkaria eta euskal prentsa erosi eta irakurtzea.

ARGIA
Euskal Herriko Astekaria

Jaso lekuan kobratu
SEILORIK EZ

ARGIA ezagutu nahi baduzu,
bete txartela eta
3 ale doan jasoko dituzu

✆ 943 37 15 45 • www.argia.com • harpide@argia.com

Izena .....
Deiturak .....
Helbidea .....
P.K.....Herria .....
Telefonoa.....
e-posta .....

ARGIA
1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA

Argia-ren 3 ale jaso nahi baldin badituzu, beraz, honako hau egin behar duzu:
Eskuetan duzun GOIENKARIArekin batera jaso duzun postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela,
943 37 15 45
telefonora deitu (Edurnez galdetu) edo zure datuak eta eskaera *harpide@argia.com* helbidera bidali.

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko martxoaren 7a

Atzeskua

MAIDER OSA

Fermin Lazkano/ 'Egunkaria'ko gerente ohia

Harrigarria da egun batetik bestera gauzak zelan aldatzen diren, ezta?

Bai. Mundu honetan ez dago ezer egonkorrik.

Bada esaera zahar bat ekaitzaren ondoren barealdia etortzen dela esaten duena. Zuri iritsi zaizu barealdi hori?

Gure bizimodua ekaitz iraunkorra da. Barealdiak motzak izaten dira, eta ekaitzak, luzeak. Oraindik bizkorregi da esateko barealdia iritsi zaigula, hondoratu eta aldatu dituzten gauza asko jaso beharrean gaude-eta.

Lemazain ona izanez gero, ez dago, ordea, beldurrik!

Lemazain onak lema ona, ontzi ona, begirale onak, bela onak... behar ditu. Sekula ez da pertsona bakar baten mende egin nahi dena, eta gutxiago egin nahi den hori gizarteari rendako garrantzitsua denean.

***Egunkaria*-ren itsasontzi handia hondoratu egin dute. Zelan definituko zenuke hondoratze operazioa?**

Burugabekeria, astakeria eta justifikaziorik gabeko basakeria. Hala ere, itsasoan azpiko korronteak dira garrantzitsuenak, itsasoak eta ozeanoak mugitzen dituztenak. Azpiko korronte hori Euskal Herrian gero eta euskaldunagoa eta Euskal Herriaren aldekoagoa da. Korronte horietako bat gelditu nahi izan dute, baina ez dira konturatzen korronte horiek hain indartsuak direla, toki baten muga jarriz gero, beste toki batetik irteten dira. *Egunkaria* itxi duten arren, orain beste egunkari bat egiteko jende eta baliabide gehiagorekin eta oihartzun handiagorekin gaude.

"Egunkaria itxi duten arren, orain beste egunkari bat egiteko askoz ere jende eta baliabide gehiagorekin gaude"

"Milaka urtean euskarak iraun du hainbat dantzaren arabera"

"Hemengo indarrak aktibatu behar ditugu"

► *Bergararra / 44 urte / Plazagunea-ko gerentea*

Urrutiko marinelak jabetu dira *Egunkaria*-ren itsasontziaren hondoratzeaz?

Nahi izan duena, bai, baina urrutira begiratzea alferrikako ariketa da. Efektibotasuna hemen lortzen denez, hemengo indarrak aktibatu behar ditugu.

Zenbaki kontuetan trebea izanik ere, inkomunikatuta pasatutako egunak kontatzeko, lanak izango zenituen!

Oso erraz kontatu nituen. Ez nuen denboraren nozioa galdu, bizpahiru ordu gorabehera.

***Egunkaria*-ri lekukoa hartuko dion proiektu berrian parte hartzeko asmorik baduzu?**

Egunkaria-ren inguruan azken 13 urteotan jardun dut, eta, lehen bezala, orain ere laguntzeko gertu nago.

Zelakoa behar luke izan egunkari horrek?

Itxi zuten egunean zegoen bezalakoa.

Plazagunea enpresan diharduzu lanean. Zeinen plaza-gune da?

Egunkaria-ren filial bat da. Bi funtzio ditugu: euskal kulturan diharduten pertsona eta erakundeen esku Interneteko baliabideak eta teknologia berriak jarri eta guk geuk eskaini internautei hainbat zerbitzu: *jalgi.com, entziklopegia.com, mapagunea.com*...

Atzeak erakusten du aurrea zelan dantzatu. Zelan dantzatu beharko genuke euskaldunok aurrea?

Euskarak milaka urtean iraun du hainbat dantzaren arabera; ez dakit axola behar digun zelan dantzatu; dantzarako gogoa behar dugu.

PIPERRAUTSA

Gerra

Ez da gauza samurra igartzea zer dagoen jokoan Iraken. Azalean petrolioa ikusten da, eta Ameriketako Estatu Batuen munduko agintaritza. Badirudi azalpean mamirik badela.

Gilles Kepel aditu frantziarrari irakurri diot aldaketa garrantzitsuren bila doala erasoa. Oso labur, helburua litzateke Ekialde Hurbilean egituraketa berria ezartzea, II. Mundu Gerran sortu zenak ez duelako balio. Mendebaldetik lagunduta, klase ertainek bultzatuko lukete demokrazia formala eta garapen ekonomikoa, bide horretatik indargabetzeko islamiar erradikalen indartzea, eta irailaren 11ko erasoaren jarraipena. Arazoaren oinarrietan eragin nahi luke planak, Kepelen ustez. Asko nahi dute, eta arriskua handia da.

Helburuak helburu, gogor eraso dute bakean zegoen herria, nazioarteko erakundeei burla eginez, eta argudio ganorabakoak erabiliz. Ezin da bonbardatu herrialde oso bat badaezpada, ezta tiroz sartu bere hirietan. Ezin da zapaldu Nazio Batuen Erakundea trapu zaharra bailitzan, ezin da jarri Europa hankaz gora zerbait izateko prestatzen ari zenean, ezin da mespretxatu iritzi publikoa aspaldi baino ozenago entzuten denean. Ezin da hori guztia debalde egin.

Auskalo zeintzuk diren Aznarren eta besteen helburu ezkutuak honela jokatzeko. Eman dituzten arrazoiek behintzat ez dute pitorik balio. Botoetan ordainduko al dute guztiek egiten ari diren kaltea!

MIKEL IRIZAR